

Elkartearen Aldizkari

2024 . 19. zenbakia

- **Editoriala**
- **Batzarraren laburpen**
- **Elkartea**
- **Literatura**
- **Iritzia**
- **Kontsumoa**
- **Bidaiak**
- ta gehiago**



BBK_ ko Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea

Principe kalea, 5. 505 saila • 48001 BILBO • Tel. 94 425 57 96 • asojubibbk@gmail.com • www.asojubibbk.es



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EDITORIAL



Queremos aprovechar la publicación de la presente Revista para enviar un afectuoso saludo desde la Junta Directiva de esta Asociación, a nuestro colectivo de asociad@s.

Hemos disfrutado de unos últimos meses de una relativa tranquilidad, celebrando el día 23 de abril nuestra Asamblea General Ordinaria anual, en la que pasamos repaso a todas las actividades efectuadas en el pasado ejercicio y a los temas y asuntos que actualmente tenemos en marcha.

Un tema importante a resaltar ha sido el de las rectificaciones y liquidaciones que se han ido sucediendo en el tiempo por parte de Hacienda, en relación con la duplicidad de cotizaciones a Seguridad Social y Mutualidades Laborales. Rectificaciones que se han efectuado como consecuencia de las diferentes y sucesivas sentencias que sobre el tema se han producido: Periodo de afectación hasta 31 de diciembre de 1978, cambio de la base de cálculo a 35 años y afectación periodo de cotización anterior a 1967.

Se han ido recibiendo rectificaciones de liquidación sobre cada ejercicio afectado, y aunque seguramente todavía quedará alguna pendiente, en general estamos muy satisfechos con el tratamiento recibido y el resultado final obtenido. Esperamos podamos disfrutar de este periodo de verano que ya tenemos encima y a la vuelta nos encontraremos con nuevos temas y actividades a desarrollar.

Un abrazo y Feliz Verano.



EDITORIALA



Aldizkari honen argitalpena baliatuz, elarte honen Zuzendaritza Batzordearen izenean agur bero bat bidali nahi dizuegu kide zaituztegun guztioi.

Azken hilabeteotan nahiko giro lasaia izan dugu, eta apirilaren 23an gure urteko Ohiko Batzar Nagusia izan genuen, non iragan ekitaldian gauzatutako jardura guztiak eta gaur egun martxan dauzkagun kontu eta gaiak aztertu genituen.


Nabarmendu beharreko gai garrantzitsuetako bat Ogasunak denboran zehar egin dituen zuzenketa eta likidazioen ingurukoa izan da, Gizarte Segurantzako eta Lan Mutualitateetako kotizazioen bikoizketari dagokionez. Gaiari buruz eman diren ondoz ondoko epaien eraginez egin dira zuzenketa horiek: 1978ko abenduaren 31ra arte bitarteko erasan-aldia, kalkulu-oinarria 35 urtera aldatzea eta 1967 baino lehenagoko kotizazio-aldiari eragitea.

Eragindako ekitaldi bakoitzari dagokionez, likidazio-zuzenketak jasotzen joan gara, eta segur aski oraindik ere baten bat egiteko egongo den arren, oro har oso pozik gaude jasotako tratamenduekin eta lortu dugun azken emaitzarekin. Goza dezagula jada gainean daukagun udaldiaz, itzuleran gai eta jardura berriei heldu beharko diegu-eta.

Besarkada bat eta uda on.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



RESUMEN DE LA ASAMBLEA GENERAL (23-04-2024)

por asojubi | Argitaratuta 25 apirila, 2024



ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE LA ASOCIACIÓN DE PERSONAS JUBILADAS Y PENSIONISTAS DE BILBAO BIZKAIA KUTXA

En Bilbao, el día 23 de abril de 2024, a las 10:30 horas, debidamente convocada, en segunda convocatoria, se reúne la Asamblea General Ordinaria de la Asociación, con la asistencia de 101 socias y socios presentes (**94 en 2023**), así como otras 168 (**155 en 2023**) delegaciones de representación y voto recibidas en el correo electrónico de la Asociación y en papel.

El Presidente de la Asociación, Txema Múgica da la bienvenida y agradece la asistencia de los presentes así como también las delegaciones de voto recibidas; se tiene un recuerdo para aquellas personas asociadas que nos han dejado en este último año. Expresa asimismo su agradecimiento a la Fundación BBK por posibilitar la realización de esta Asamblea en el Bizkaia Aretoa - Paraninfo de la UPV.

El Presidente expresa la satisfacción que ha producido para los componentes de la Junta la favorable resolución definitiva a la gestión grupal de 509 asociadas y asociados tramitada ante la Hacienda Foral de Bizkaia por las cotizaciones a las Mutualidades Laborales hasta diciembre de 1978.

A continuación, se expone el punto 1 del Orden del día

1.- Informe situación GAUZATU.

Se presenta la siguiente información relativa al ejercicio 2023.

- La rentabilidad de Gauzatu en el ejercicio 2023 ha sido el 4,09 %. (4,05% el año 2022)
- El Patrimonio de Gauzatu está compuesto exclusivamente por Renta Fija y Tesorería
- La vida media de la Cartera de Renta Fija a diciembre de 2023 es de 57 meses y con un tipo de interés efectivo medio del 4,27%

- El número de personas a diciembre de 2023 integran Gauzatu es de 362 (descenso de 16 respecto a 2022), de las que 86 son socias y socios (descenso de 7 respecto a 2022) y 276 beneficiarios (descenso de 9 respecto a 2022). En 2023 ha habido 6 incorporaciones a Gauzatu de personas activas de Kutxabank afectadas por invalidez u otras contingencias.

Seguidamente, Miguel Lafuente pasa a desarrollar el punto 2 del Orden del Día

2.- HAZIA. Memoria Ejercicio 2023

Miguel Lafuente, representante de la Asociación en el Comité de Inversiones de HAZIA, hace una amplia exposición de datos relativos al ejercicio 2023.

- Comenta que la rentabilidad de la EPSV en 2023 ha sido del 5,31%, con la siguiente distribución por Activos:
 - Renta Fija + Tesorería 1, 72%
 - Inversiones Alternativas 0,11%
 - Renta Variable 3,75%
 - Coberturas 0,26
- La rentabilidad de HAZIA en 2023 ha quedado un 2,2% por encima de la inflación.
- La rentabilidad anualizada de HAZIA desde su inicio en 1990 es del 6,47% frente al 2,80% del IPC acumulado del País Vasco en el mismo periodo.
 - La distribución de los Activos a cierre de 2023 es la siguiente,
 - Renta Fija + Tesorería 68,1%
 - Renta Variable 25%
 - Inversiones Alternativas 6,9%.



- A cierre de 2023 la Renta Fija presenta una duración media de la cartera de 58 meses, superior en 9 meses a la del año pasado.
- El número de personas que a diciembre de 2023 integran HAZIA es de 3.409
 - de las que 3.211 son socias y socios ordinarios (activos, pasivos, en suspenso)y
 - 198 corresponden a socias y socios beneficiarios.
- de las 3.211 socias y socios ordinarios de HAZIA,
 - 1.253 corresponden al colectivo 1 y
 - 1.958 al colectivo 2

En perspectivas para 2024, Miguel Lafuente, expone que

- Se ha contratado una nueva cobertura que busca amortiguar las posibles pérdidas que se producirían si las bolsas caen en el año entre un 13% y un 47% aproximadamente, utilizando una estructura de derivados cuya pérdida máxima posible está limitada al coste que supone aproximadamente un 0,41% del patrimonio de HAZIA.
- en base a las previsiones realizadas en diciembre de 2023, para una subida de los índices de Renta Variable del 5%, se podría estimar una rentabilidad de HAZIA del 3,4%.

Las personas asistentes se dan por enteradas.

Seguidamente José Antonio Diez pasa a desarrollar los puntos 3 y 4 del Orden del Día

3.- Presentación y aprobación, en su caso, de las cuentas del año 2023, comprensivas de los ingresos, gastos e inversiones de dicho Ejercicio.

El vicepresidente, José Antonio Diez expone los datos económicos del pasado año, dando una amplia aclaración al resultado acreedor de 6.117,10 € en el ejercicio,



motivado fundamentalmente por una partida de 7.000 € presupuestada para “gastos abogados” que no se ha ejecutado en su totalidad.

Se aprueba por unanimidad de presentes y representados, las cuentas del año 2023

Se expone también la evolución de altas y bajas de socios, que se ha incrementado en el año 2023 con 42 altas, habiéndose producido 27 bajas (20 por fallecimiento y 7 bajas voluntarias). A 31 de diciembre de 2023, la Asociación cuenta con un total de 1.449 personas asociadas.

4.- Presentación y aprobación, en su caso, del presupuesto de ingresos, gastos de la Asociación para el año 2024

José Antonio Diez expone el Presupuesto para el año 2024, con unos ingresos previstos de 24.000 euros y unos gastos de 29.738,36 euros. Destaca una partida de 10.000 € presupuestada para “gastos abogados”.

Propone José Antonio posponer la votación del presupuesto hasta la presentación del Punto 7 relativo a Fiscalidad de EPSVs donde se da explicación detallada a la partida de “gastos abogados”.

Una vez expuesto el referido punto 7 del orden del día, se aprueba por unanimidad de las personas presentes y representadas el presupuesto de ingresos y gastos presentado para el año 2024.

Seguidamente Angela pasa a desarrollar el punto 5 del Orden del Día

5.- Presentación del Informe de actividades de la Asociación en el año 2023 y propuesta de actividades para el año 2024

Expone Angela las acciones realizadas en el año 2023, en el que se han llevado a cabo un total de 17 actividades, entre viajes, eventos, concursos y ofertas, con una participación total de 1,370 compañeras y compañeros, destacando como actividades con amplia participación la celebración de la Asamblea, Excursión a Sidrería, Comida de la Asociación y destacando claramente las 509 reclamaciones realizadas de forma grupal por Cotizaciones a Mutualidades Laborales.

Esboza asimismo los proyectos previstos para el año 2024, informando que se mantiene un año más el acuerdo de colaboración con la Unión de Consumidores de Euskadi (UCE) debido a que año tras año mantiene una buena utilización de socias y socios y con un buen grado de satisfacción.

En lo referente a excursiones y viajes se concretan en:

- Excursión sidrería febrero
- Subida a Pagasarri abril
- Viaje Rumania - Bulgaria mayo
- Viaje Uzbekistán - setiembre
- Excursión de otoño octubre
- Viaje a Indonesia noviembre

Asistentas y asistentes se dan por enterados y validan el plan general de actividades de la Asociación.

Seguidamente Iñaki Palomar pasa a desarrollar el punto 6 del Orden del Día

6.- Propuesta de aprobación a la gestión de la Junta Directiva, así como propuesta de reelección de la actual Junta Directiva.

En cumplimiento con lo que se recoge en el artículo 7 _e de los vigentes Estatutos, se presenta para su aprobación la gestión de la Junta Directiva correspondiente al año 2023

Se aprueba por unanimidad de los presentes y representados la gestión en su conjunto de la Junta Directiva.

En cumplimiento con lo que se recoge en el artículo 16 de los vigentes Estatutos y no teniendo constancia de la conformación de ninguna otra candidatura, se propone la reelección de la actual Junta Directiva por un nuevo período de 3 años.

Se aprueba por unanimidad de los presentes y representados la reelección de la actual Junta Directiva.

7 - Fiscalidad de EPSVs y Planes de Pensiones - Gestiones realizadas y previsión de futuras acciones

El Presidente Txema Múgica expone que recogiendo la preocupación expresada en las últimas Asambleas por el tratamiento fiscal existente en los rescates de EPSVs y Planes de Pensiones, desde la anterior y la actual Junta Directiva se han venido analizando posibles intervenciones legales que pudieran llegar a obtener el objetivo fundamental de que los rendimientos obtenidos tengan un tratamiento fiscal más beneficioso que el actual.

En la última Asamblea General esta Junta Directiva solicitó y obtuvo autorización para seguir investigando y consultando con bufetes sobre el tema, habiendo mantenido en este año consultas y reuniones con diversos abogados y bufetes.

Recientemente la Junta Directiva decidió acudir al bufete Navas&Cusi de Madrid, experimentado en pleitos en Europa, al que se le ha solicitado un informe detallado con los posibles argumentos jurídicos que justifiquen el inicio de acciones y/o reclamaciones legales.

Una vez obtenido dicho informe se analizará y consultará con jurídicos externos e internos de la Asociación y si como resultado de estas consultas se entendiera que se puede seguir adelante, se procedería a convocar una Asamblea General Extraordinaria donde se analizaría y valoraría la posible demanda a interponer.

Es importante recoger que la posible demanda, siempre será a título individual.

Algunos asistentes exponen sus opiniones y valoraciones.

Las personas asistentes de dan por enteradas.

8 - IMQ - Cuotas 2025. - Gestiones a realizar para negociar cuotas

El Presidente Txema Múgica hace referencia al acuerdo de Seguro Privado cerrado en junio de 2022 con el IMQ para nuestro Colectivo que contenía entre otras cuestiones, el mantenimiento de la antigüedad, una importante reducción del coste de copagos respecto a los de años precedentes y misma red sanitaria para las socias y socios de fuera de la Comunidad Autónoma Vasca, a la vez que se fijaron las tarifas iniciales para los años 2023 y 2024 tanto de la póliza Clásica como de la póliza Oro.

Es intención de la Junta Directiva mantener nuevas reuniones con la Dirección del IMQ para revisar y negociar nuestras tarifas para próximos ejercicios y cualquier información de interés se pondrá en conocimiento de todos los asociados.

Las personas asistentes de dan por enteradas.

9.- Ruegos y Preguntas

Se hace referencia a la sentencia del Tribunal Supremo STS 4909/2023 del 16 noviembre 2023, relativa a una demanda por discriminación interpuesta por una trabajadora de Kutxabank (entorno Kutxa) que por el hecho de que su situación laboral en mayo de 1988 era de trabajadora temporal, en su día quedó integrada en la EPSV Lanaur Bat, en vez de en Lanaur Hiru,.

Desde la Junta estamos a disposición del posible grupo de personas del entorno BBK que pudieran encontrarse en una situación similar, para ayudar y colaborar en lo que nos soliciten.

Un asistente hace también referencia al diferente complemento económico ofrecido en las prejubilaciones de 2017 a los hombres, respecto de las mujeres con 2 o más hijos, Antonio García le comenta que ese caso se reclamó en su día por unas 40 personas y se ganó la demanda a Kutxabank

9.- Redacción, lectura y aprobación, en su caso, del acta de la Asamblea.

Se procede a la redacción del acta de esta Asamblea, se lee y es aprobada por unanimidad de los presentes y representados.

Firma esta acta el secretario con el Visto Bueno del presidente

En Bilbao a 23 de abril de 2024

VºBº : El presidente. El secretario



ELKARRIZKETAK ELKARTEAN

por asojubi | Argitaratuta 19 otsaila, 2024


DUELA HILABETE BATZUK, JAVI VILLAVERDEK ESAN ZIDAN ALDIZKA AFILIATUEKIN ELKARRIZKETAK EGITEA PENTSATZEN ARI ZELA, GURE KOLEKTIBOARENTZAT GAUZA INTERESGARRIAK ESAN DITZAKETELA USTE DUGUN HAIEKIN.

INTERESGARRIA IRUDITU ZITZAIGUN ANGEL CAREAGAREKIN HASTEA, BERA IZAN BAITZEN ELKARTE HONEN AURREKO LEHENDAKARIA. JARRAIAN DATORREN ELKARRIZKETA NAHIKOA DA HITZAURRE GEHIAGO EZ EGITEKO.

EDUKIA ZUEN GUSTUKOA IZATEA ESPERO DUGU. HURRENGO ARTE!

Jorge Ibor – Javier Villaverde.

6



Ángel Careaga

Laster beteko dira 10 urte aurre-erretiroa eskaini zidatenetik, eta hasiera-hasieratik pentsatu nuen zelan erabiliko ote nuen etorriko zitzaidan denbora libre.

45 urtez Udal Aurrezki Kutxan, BBKn eta, azkenik, Kutxabanken nire eginkizunak bete ostean, hainbeste urtetan izan ditudan esperientzia positiboak, lortu ditudan harreman pertsonalak eta, azken finean, egokitu zaizkidan lantaldeak ezin ziren, beste barik, “ahaztu” nire lan-egoera berrira igarotze hutsagatik.

Lan-bizitza luze honetan nire lankideekin sortutako adiskidetasunezko loturak hain izan dira sendoak, ezen ezin zirela egun batetik bestera “eten”, eta egunak igaro ahala saiatu izan naiz eta saiaturiko naiz horiek gero eta sendoago mantentzen. Ez dakizue zein pozgarria gertatzen den dagoeneko erretiraturik dauden nire lankide ohien aldetik ez ezik, gaur egun jardunean daudenen aldetik ere aitortua eta gogoan hartua sentitzea.

Aurre-erretiroaren eskaintzaren berri izan nuenean hartutako lehen erabakia Elkarte Zuzendaritza Batzordeko kideren batekin harremanetan jartzea izan zen, bertan izena emateko.

Nire adiskide-talde zabalaz gozatzen jarraitzeko “topagune” egokia iruditu zitzaidan.

ZERK EROAN NINDUEN ELKARTEKO LEHENDAKARI IZATERA

Nire afiliatziotik hamabost hilabetera, eta Elkartearen 2015 Urteko Batzarra zela-eta, elkartekide-talde batek hautagaitza bat eratu genuen Zuzendaritza Batzorde berri bat eratzeko, aurrekoek ordezkatu edo txandakatzea eskatu zutelako.

Erakutsi zuten jarrerak, haien ezaupide frogatuek, bermatzen zituen esperientzia profesionalak eta Elkartearen jarduerak sustatzeko zuten gogoak, jarduera-arloen (Informatika, Juridikoa, Fiskala, Ekitaldiak, eta abar.) arabera lantaldeak dinamizatuz, Lehendakaritza hartzeko konbentzitu ninduten, betiere haien ezinbesteko eta beharrezko laguntza izaten banuen, eta hala erakutsi zuten presidente izan nintzen sei urteetan.

ZELAN DEFINITUKO NITUZKEEN URTE HAIEK

Zorte handia izan nuen topaturiko lagun-taldearekin, ni bezalaxe, haiek ere erabat konbentziturik baitzeuden Elkartearen jarduerak areagotzeko beharrianaz.

Hala ere, gure helburu nagusia Elkartea ezagutaraztea zen BBK-tik etorritako Erretiratu kolektibo zabalari, eta batez ere duela gutxi erretiroa hartutako lankide askori.

Helburu horretan eman genuen gure lehenengo ekitaldi ia osoa; izan ere, afiliatzea edo elkartekide egitea eskatzen genienean, galdera bera egiten ziguten beti: “Baina zuek, zer egiten duzue?”.

Gure masa soziala handitzearekin batera, jarduera, txango, bidaiak, interes orokorreko artikulak, gure ‘Hazia’ri buruzko aldizkako jakinarazpen eta abarren programa bat prestatu genuen, gure Elkartean jarraitzeko interesa bizirik mantentzeko.

Baina, egia esateko, gure erretiroa 63 urtera aurreratzeagatik konpentsazio gisa jasotzen ditugun osagarrien tratamendu fiskala hobetzea izan zen, zailtasun barik, gure Elkartearen benetako helburua, Gure **Kolektiboaren Interesen Defentsa**, justifikatu zuen MUGARRIA.

Kutxabankeko Giza Baliabideetako eta Aholkularitza Fiskaleko sailen eta Erakunde Sindikalen erabateko ekintzarik ezaren aurrean, aipaturiko lorpen horren garrantzia ekonomikoki oso handia izan zenez, eta kal-

tetuen, elkartekide eta elkartekide ez zirenen, kopuru handi bati eragin zionez, gure masa soziala esponenzialki hazi zen, gure jardueri buruzko zalantzak, “zer egiten duzue zuek?”, erabat ezabatu genituen eta aldi baterako.

Jarraian, sakon aztertu genuen gure Elkartea “berriak” izan behar zuen jarrera gure HAZIA BGAEko gobernu-organoetan.

Ordu arte, Gauzatu eta Haziako bazkideek antzeko kopuruetan osatzen zuen aurreko Elkartea. Hasiera-hasieratik ikusi genuen gure BGAE-ren helburuak kontrolatzen zituztela, alde batetik, Bazkide Babesle deiturikoez eta, bestetik, Erakunde Sindikalek gure ordezkari gisa (Bazkide Osoak, hala deitzen zaigu). Garai hartan ASPEMen eskutik gindoazen.

Gure “indarguneak” zehatz-mehatz aztertu ostean, gure Kolektiboari eskubide finkatuen % 70 baino gehiago baitzegozkion, hautagaitza bat prestatzea erabaki genuen, beste Erakunde Sindikal batzuetatik kanpo, gure Kolektiboaren interesak berme osoz ordezkatu ahal izateko; izan ere, ordu arte Bazkide Osoen beste ordezkariak ez zituztela interes horiek defendatu ulertu genuen.

Gure helburuak eta, aldi berean, gure Elkartea ezagutzera emango ziztuen kanpaina prestatzeak (**hauteskunde-eroldaren % 50ek baino gehiagok ez zeukan gure berri**), inbertsioei, gai fiskalei eta juridikoei buruzko ezaupideak eman zitzaizkion hautagaiak aukeratzeak eta, batez ere, hautagaitzak eskatzen duen dedikazioak bultzatu gintuen Hautagaitza Bakarra aurkezteko proposamena egitera gure Urteko Batzarrari, ezelango erakunde sindikalekin partekatu beharrik gabe, gure afiliatuen eskubideak defendatzeko independentzia eta dedikazio osoa erakutsiz.

Hauteskunde-prozesu hartan lortutako emaitza oso positiboa izan zen, lehian zeuden 20 postuetatik 9 lortu baitziren.

Aurrez aurreko bozketaren egunean, sindikatu batzuek gure hautagaitza aurkeztea “ausarta” zela “aurpegiratu ziguten”, beraien ustez, gure ordezkariak erakunde sindikalen erabateko arreta jasotzen baitzuen, eta guk “ez genuen horretarako beharrezko esperientziarik”.

Lortu izan dugun babesak eta konfiantzak guztiz kontrakoa erakutsi dute.

ZER HELBURU LORTU GURA GENITUEN

Bertatik bertara ezagutzea bai Inbertsioen Batzordean eta bai Gobernu Batzordean hartzen diren erabakiak.

‘Hazia’ko gobernu-organoen dinamika buruzko proposamenak egitea eta iritzia helaraztea.

Baina orain arte, saiatu garen arren, ez dugu lortu gure proposamenak Bazkide Osoen (sindikatuak) gainerako ordezkariarekin koordinatzea.

Kutxabaneko Giza Baliabideetako Zuzendaritzarekin dugun harremana ere ez dugu hobetu, nire uste apalean, gure kolektiboa ez delako oso malgua, eta zalantza jartzen duelako, egunez egun, gure HAZIA BGAEaren barruan egin beharko luketen babes-lana.

Saiatzeko jarraituko dugu, ezinbestekoa baita harreman horiek normalizatzea, bai sindikatuarekin, bai Kutxabanekin. **DENOK HELBURU BERRAK LORTU NAHI DITUGU: “BGAE-RIK ONENA”.**

ZUZENDARITZA-BATZORDE BERRIRAKO TRANTSIZIOA

Zentzuzkoa baino tarte handiagoa igaro ostean, Zuzendaritza Batzordea mailaka berritzea erabaki genuen, gure egitekoak utziz batzordearen zati batek (% 50) eta bere horretan jarraituz gainerako kideak.

Batzorde berriak bere dedikazioa, ezaupideak eta interesa erakutsi ditu, lortutako emaitza positiboek—genero-arrakala, IMQ, antzinako Lan Mutualitateen kuotak, afiliazio berrien eguneroko hazkundera, etab.—adierazten duten bezala.

ZELAN LAGUNTZEN DUT ORAIN ASOJUBIBBK-N

Bada, Haziako Gobernu Batzordean Asojubibbk-eko ordezkari gisa izendatuta egoteaz gain, bai nik eta bai aurreko Zuzendaritza Batzordetik irteerako kide batzuek Asojubibbk-en eguneroko dinamika laguntzen jarraitzen dugu, hor nabarmenduz gure Iguala Medikoa (IMQ) galtzearen eta antzinako mutualitateei egindako kotizazioen zerga-eskubideen erreklamazioen inguruan egindakoak.

Horregatik, uste dut egungo Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa “bikaintzat” jo behar dela Erretiratuen Kolektibo osoarentzat, elkartekidearentzat eta elkartekide EZ direnentzat, lortu dituzten onurengatik, onura sozialak ez ezik ekonomikoak ere bai.

Zer gehiago egin behar dute zalantza daudenak afiliatzera konbentzitzeko? Baina, batez ere, EZ dugu ahaztu behar “zalantza barik” eman behar diogun babes 2025eko hauteskunde-prozesuetara aurkeztuko duten hautagaitzari HAZIAren gobernu-organoetarako

ZER IKUSTEN DUT HAZIAKO GOBERNU-ORGANOETAN?

Gobernu Batzordean sartu nintzenetik, egiaztatu ahal izan dut BI ordezkariak daudela: Bazkide Babeslearen batetik, eta Bazkide Osoena bestetik (berdinakorde ordezkarien kopuruari dagokionez: **9 eta 9**), eta horiek ez dute jarduten, nire ustez, behar den koordinazioarekin, batez ere gure Elkarteen eta sindikatuaren artean. **Bazkide Babeslearen 9 ordezkariak dedikazio txikia** dute, eta beren esku-hartzeak eta partaidetza beren **kideetako hirurengan soilik** kontzentratzen dituzte; gainerakoak ez dira bertaratzen eta aipaturiko 3 horien gainean dute normalean beren ordezkariak, eta ez dituzte ezagutzen haien iritzia eta hausnarketak, ezta haien dedikazioa ere, eta bertaratutakoek beraien botoak erabiltzea onartzen dute, saio gehienetan, nik esaten dudana bezala, ‘arabola’ edo alferra pasatzeko, **inola ere errespetatu barik Bazkide Osoen ordezkarien bozketen emaitzak**, nahiz eta, nire ustez, kontuan hartu beharko liratekeen ustez burutu beharko luketen babes-ekintzen barruan.

Egoera hori hobetu liteke eta hobetu beharko litzateke 2025eko hauteskundeetan, gure Elkarteko ordezkarien kopurua handituta.

Hauteskunde horietarako oso kontuan hartu beharreko datu garrantzitsu bat bozketaren sistema nabarmen hobetzea da, azken bi hauteskunde-prozesuetako irregulartasunak saihestuz, botoak posta bidez edo Kutxabaneko gure bulegoetan jasota, eta hautagaitzak hauteskunde-eroldako guztiei bidalita.

Oraindik ere badira hobetu behar ditugun gaiak, gure BGAE-n dagokigun pisu espezifikoarekin parekatzen saiatuz gure ordezkariak.

Oso baikorra naiz gure Elkarteen etorkizunari buruz; izan ere, Zuzendaritza Batzordeetako kideak eta laguntzaile-talde gaituak egindako lana Erretiratuen Kolektiboan sortutako itxaropenak dinamizatzea lortzen ari da, emaitza oso positiboekin.

Hori da egungo bazkideei eta erretiratuen etorkizuneko promozioei transmititzeko motibazio onena.



AZPEITIA • LOIOLAKO SANTUTEGIA • BURDINBIDEAREN

por asociado | Argitaratuta 5 martxoan, 2024

Joan den otsailaren 14an, Azpeitiko Añota sagardotegira antolatutako txangoa egin genuen, jardueraz betetako egun bikainaz gozatzeko. 08:30ean, aparteko antolaketarekin, bi autobusak bete ziren izena emandako 108 pertsonekin, eta Bilbotik Azpeitira abiatu ginen; Durangon geldialdi teknikoa egin hiru lagun hartzeko eta Loiolako Santutegiraino jarraitu genuen.

Bidaia girotzeko asmoz, Javi Campo lagunak Basilikako organoaren eta ondoren elizan joko zituen hiru piezen historia kontatu zigun. Era berean, San Ignazio Loiolakoaren abestiaren testuarekin orri bat eman zigun, autobusean entseatu eta gero elizan abestu ahal izateko, berak edo Itziar Urbietak (Santutegiko organistak) organoarekin lagunduta. Entseguan ez ginen oso fin ibili, baina organo-jotzailearengan jarri genuen konfiantza akatsak disimulatzeko. Helmugara 9:40ak aldera iritsi eta, aurreikusien arabera, gosalduta egin genuen berehala, ibilbidea indarberrituta hasteko.

Goizeko 10etan Loiolako Santutegia bisitatzeari ekin genion. Prestatuak zituen obrekin gozarazi zigun Javi Campok: bikain jo zituen eta, entzundako iruzkinen arabera, bertaratutakoen gustukoak izan ziren, nahiz eta, apaltasunagatik, bigarren mailako organistatzat izan bere burua Javik. Nire zorionik beroenak! Ezin dut gauza bera esan gainerako bidaideei buruz, San Ignazioren ereserkia ez baitzen oso txukun atera, autobuseko entsegua eta organo-jotzailearen borondate ona gorabehera. Ondoren, Santutegiaz arduratzen zen jesuitak, Indautxuko Jesuiten Ikastetxeko irakasle ohiak (oroitzapen onak zituen Bilboko egonaldiaz), ongietorria egin zigun.

Gidariak barroko, eta barruan churrigueresko, estiloko santutegiaren historia azaldu zigun. Santutegia San Ignazio Loiolakoaren jaiotetxearen ondoan eraiki zuten (1688 – 1888). Santua Jesusen Lagundiaren sortzailea izan zen, haren izena Eneko (Iñigo) Lopez Loiolakoa zen, Beltran Yañez Loiolakoaren semea, Loiola Etxeko VIII. jauna, oinaztarren burua. Eraikina 1738ko uztailaren 31n inauguratu zen, San Ignazio egunean. Eraikin



EUSKAL MUSEOA • AÑOTA SAGARDOTEGIA

osoa Izarraitz menditik ateratako marmolezko bloke handiekin egin zuten 600 harginek.

Ondoren, santuaren jaiotetxea bisitatu genuen eta haren bizitzaren berri eman ziguten. 1521eko maiatzean, soldadu zenean, Iruñeko Guduan zauritu omen zuten, Nafarroako Henrike II.aren erregealdia babes-ten zuen nafar eta frantziar kontingente baten aurka borrokan. Gertaera hori erabakigarria izango zen ha-

ren bizitzan, eriondoan erlijio-liburuak irakurtzeak fede katolikoan sakontzera eta santuen imitaziora eroan baitzuen. Beraz, osatu zenean, Jerusalemara erromes joatea erabaki zuen. Lurralde Santutik itzuli zenean, ikasten eta predikuan hasi zen, bere gogojardunen metodoan oinarrituta. Geroago, Jesusen Lagundia sortu zuen. Hamabost urtez Jesusen Lagundiaren buru izan zen jeneral lez eta Erroman egon zen. 1556ko uztailaren 31n hil zen.

Santutegiaren egungo egoerari buruzko irudi eta iruz-kinekin etxean ibilaldi bat egin ostean, eraikina utzi eta autobusera bideratu ginen Azpeiti erdialderaino joateko, eta han Trenbidearen Museoa ikusteko.

Museora iritsita, txartel bat eman ziguten nasara sartu ahal izateko. Bertan, museoko langileek egin ziguten harrera eta lurren-trean eroso jarri gintuzten. Azpeititik Lasaora 5 km-ko bidaia egin genuen Urolako trenaren ibilbidetik; garai batean Zumarragatik irten eta Zumaia-eraino herri guztiak zeharkatzen zituen. Bailarako ikuspegiez gozatu ahal izan genuen, eta ibilbidean zehar behin baino gehiagotan zeharkatu





genuen Urola ibaia. Barre txikien artean gogoratu genituen gure haurtzarora eramán gintuzten argi gabeko tunelak eta zurezko eserlekuak zituzten bagoiak. Lasáon, Juanjo Olaizola museoko zuzendari eta makinistak lurrunezko makinén eta Gernikatik Bermeorako burdinbidearen eraikuntzaren historia azaldu zigun. Gero, bidez aldatu eta lurrunezko tren ketsuan museora itzultzen hasi aurretik, zenbait begiluzek tren zaharraren WCaz gozatu zuten, bere oroigarri desatsegin eta guzti, baina hori bai, gezurrezkoa.

Berriz ere Museoan, lantegiak eta nabeak ikusi genituen. Bertan claude erabat zaharberriturik eta funtzio-namenduan 60 ibilgailu baino gehiago: lurrunezko tren-makinak, hiri-tranbiak, bidaiarientzako eta salgaiantzako bagoiak, trolebusak, Donostiako suhiltzaileen 'Magirus' markako kamioi bat (1922), motorrak eta Seat 600 E bat martxan.

Ezagutzen ez duenarentzat merezi du buelta bat ematea eta han iragana gogoratzea.

Museora bisita 14:00etan amaitu ostean, Añota sagardotegira joan ginen. Bertan, taldeko argazkiaren ostean, Azpeitiko herriaren eta Xoxote eta Erlo mendi ederren ikuspegiak miretsi genituen, mahaian eseri eta menuaz eta gure arteko giro onaz gozatzen hasi aurretik. Juan Marik Txotx! oihu egitean, kupeletara joan-etorriak hasi genituen bakoitzaren egarriaren arabera.

Menua programan agertzen zena izan zen eta, beti bezala, txuleta, egokitu zaizunaren arabera, ba, ona, erdipurdikoa edo batek daki; generoaren kalitatea, oro har, oso ona izan zen nire ustez, baina kafeen inguruko zerbitzua eta antolaketa oso eskasa; kantu batzuen ostean, lokala utzi genuen.

Egitarauari jarraituz, Elosiagako Andre Mariaren ermitaraino joan ginen oinez gidarekin batera. Han, herriko bizilagun bat genuen zain, giltzarekin. Santa Luziari eskainitako ermitako erretaulari buruzko azalpenak eman zizkigun, eta inguruko ohiturak azaldu ere bai: zaindariaren jaiegunean biltzen dira bertan animaliak bedekatzeko eta abar, erromeriaren aurretik. Hilean behin egiten dira mezak han, eta gainerako egunetan itxita egoten da. Barruan, lankide izandako baten lagunek, musika-abesbatza bateko kideak, abesti polit batekin alaitu gintuzten. Autobusera itzuli eta jende guztia iritsi bitartean, publikoak kantu berriak eskatu zizkien abesbatzako kideei, Azpeitia herria ikustera abiatu aurretik, baina hori bai, abesti politengatik txalo-zaparrada handiak eskaini ondoren.

Herrira iritsitakoan, gidarekin ibilaldi bat egin genuen erdigunean, eta hainbat eraikin ikusi genituen: hala nola Enparan dorretxea, Azpeitiko eraikinik zaharrena, non Informazio eta Turismo Bulegoa dagoen; edo Soreasuko Sebastian Deunaren eliza, barruan San Ignazio Loiolakoaren bataiarria duena; baita Basozabal jauregia eta Garbitoki Zaharra ere, 1842an eraikia.

Autobusera itzultzea besterik ez zen geratzen Bilbora itzultzeko, eta bukatutzat eman genuen espetakoa erruz gaudituz zuen txangoa. Nire zorionak antolatzaileei!

11

Beste barik, agur.

Javi Guerrero

Btravel & CATAI

Btravel y esta Asociación hemos renovado el acuerdo en vigor para su aplicación a lo largo del 2024 en los siguientes términos:

DESCUENTOS

- **5% de descuento** directo para programas de paquetes mayoristas generales del mercado. Exceptuando el programa propio de +55.
- **7% de descuento** directo en paquetes de viajes mayoristas propios (Catai, Travelplan, Quelonea, Jolidey, Viva Tours, Special Tours)

CLIENTES PREMIUM

Los afiliados y afiliadas a esta Asociación estamos considerados como CLIENTES PREMIUM de Btravel lo cual supone contar con un nivel superior más personal e individualizado de atención, asesoría, diseño y contenido de cada viaje.

NOTA: las oficinas Premium de BTravel no atienden IMSERSO. Quien lo desee se puede poner en contacto con Gema (tfn: 944272220) de la oficina de BTravel en Bilbao, calle Dr. Areilza junto a Gran Vía.



Indochina Ezagutzen

por asociado | Argitaratuta 26 urtarrila, 2024

Vietnam, Kanbodia, Thailandia eta Istanbul
(2023/11/4-22)

12



Joserrak, Viajes Ikearen izenean, antolatu eta gidatuta, azaroaren 4an ekin zitzaion 19 eguneko bidaia ahaztezin honi Asiako hego-ekialdean barrena. Taldea 19 lagunek osatzen genuen, eta gehienontzat Vietnam, Kanbodia eta Thailandia bisitatzeko genituen lehen aldia zen. indochina-1

Bilbotik Hanoira joan ginen hegazkinez, Istanbulen geldialdia eginez, eta lehen gaua hegazkinean bertan igaro genuen. Hanoi hotelera iritsi ginenerako, ia arratsalde erdia zen, eta denbora aprobeztatu behar zen. Horregatik, taldeko batzuek kalez kale ibiltzea erabaki genuen, hori baita Hanoi egin behar dena.

Hanoi: hiria eromena da, kaotikoa motor- eta jende-kopuruegatik. Old Quarter edo Auzo Zaharreko kaleak, asteburuetan, autoen trafikoa ixten zaizkio, baina ez motorren zirkulazioari. Old Quarter denda, taberna, jatetxe eta, batez ere, bertakoen taberna txikiak beteta dago, haietan kalean bertan kozinatzen da batzuetan eta plastikozko aulki txikietan eserita jaten da. Aipamen berezia merezi du Hanoiako trafikoa; izan ere, autoak, motorrak eta tuk-tukak inolako seinale barik ibiltzen dira, baina koreografia ezin hobearakin.

Hanoi osorik igaro genuen lehen egunean bisita gidatua egin genuen hiriko leku historikoenetarik, besteak beste: Literaturaren Tenplua (herrialdeko lehen unibertsitatea eta Konfuziori eskainia); Tran Quoc pagoda (Hanoiako pagoda zaharrena, 541. eta 545. urteen artean eraikia); Ho Chi Minh mausoleoa; Zutabe Bakarrek pagoda; Hoam Kiem lakua (edo "Ezpata Berrezarria", ezpata bati esker Le Loi bertako heroiak txinatar inbaditzaileak garaitu eta Vietnamgo independentzia berrezartzea lortu baitzuen 1425. urtean); Hoam Kiem lakua bertan uharte batean, Ngoc Son tenplua dago, oso atsegin eta lasaia hiriko iskanbilaren aldean; eta eguna amaitzeko, tuk-tukean paseoa.

Huan, 65 urteko vietnamdarra, izan genuen gidari. Bere herrialdeko historiari buruzko ezaupideekin gu ilustratzeaz gain, bere historiako pasarteak partekatu gura izan zituen gurekin, eta hori izugarri eskertu genion, herrialdea apur bat hurbilago sentiarazi zigulako, oso une onak eta ahaztezinak pasarazteaz gain.

Hanoi utzi eta Halong badiara iritsi ginen. Han, 48 bidaiarienezko Bhaya Cruise Classic gurutzaontzia hartu genuen.

Halong badia Gizateriaren Ondarea da 1994tik, indochina-5 eta Munduko Zazpi Mirari Naturalen artean dago. Kareharrizko egitura edo formazio ugari zaituen dago, eta 1.600 uharte eta uhartetxo inguru osatzen dituzte, uretatik ateratzen direnak, senadi eta ubideen labirinto moduko bat sortuz.

Kondairaren arabera, Vietnamgo iparraldean herensuge bat bizi zen itsasoaren inguruko mendietan. Itsasertzarako bidean, isatsa astintzen zuen, haran eta arraildura handiak sortuz herrialde osoko harkaitzetan. Dragoia urperatu zenean, itsasoak urpean hartu zituen haiek, eta gailur harritsuak bakarrik geratu ziren agerian. Zalanta barik, uhartetxo haien sorrerari buruzko azalpen zientifikoa ez da hain fantastikoa. Baina atsegin ditugu kondaira edo elezaharrak

Halong badiaren ingurune bikainaz gozatu genuen hainbat jarduerarekin: kayak, tai-chi, Sung Sot kobazuloaren bisita, txipiroi-arrantza, ... baina batez ere bere edertasun natural harrigarriaz, bere lasaitasunaz, isiltasunaz eta naturaren mirari haren mirespenak sortzen duen ongizateaz gozatu genuen.

Lau egun baino ez generamatzen herrialde hartan bidaiatzen, eta jada konkistatuak gintuen bere edertasun, bizi-filosofia, erresilientzia eta sinpatiarekin.

Ninh Binh aldera jarraitu genuen bidaia, arratsaldean Hoa Lu (X. mendeko gotorleku inperiala) bisitatu genuen, eta biharamunean 500 eskailera-maila irregularrak genituen zain Mua Caveren iristeko. Igoera oso nekagarria da bero eta hezetasunagatik, baina bista edo ikuspegiaren edertasunak konpentsatzen du

ahalegina. Alde batetik, Ngo Dong ibaia Tam Coc-en, bestetik arroz-soroak eta nenufar-eremuak, eta, atzean, Ninh Binh hiria.

Handik gutxira, Ngo Dong ibaiaren barrena sampan-ez ibilaldi bat egin genuen, kobazulo ikusgarri, kareharrizko labar eta arroz-soro ederretan barrena. Inguruan dauden harrizko labar handiak ikusi ostean, erraza da ulertzea zergatik esaten zaion Tam Coc-i "lehorreko Halong badia".

Ingurune natural zoragarri haiek atzean utzi eta Hue-ra joan ginen hegazkinez

Hue Vietnamgo erdialdeko hiri bat da, Nguyen dinastiako enperadoreen egoitza eta nazioko hiriburu izan zena 1802 eta 1945 artean. Khai Dinh eta Minh Mang enperadoreen hilobiak eta gotorleku inperiala ikusi genituen han.

Huetik Hoi Anerantz jarraitu genuen errepidez, eta paisaia eta ikuspegi zoragarriak begiesteko aukera izan genuen bidean, besteak beste, Dam Lap An aintzira (ur gaziko aintzira, etxe tipikoekin pilote gainean) eta Marmolezko Mendiak (marmolezko egitura bitxiak, gailendu eta altuera handia hartzen dutenak. Paisaia berezia da. Bost mendi daude eta 5 elementuak irudikatzen dituzte: ura, sua, minerala, lurra eta zura)

Hoi An iritsi ginen. Batzuek diotenez, Vietnamgo hiririk ederrena da, bere alde zaharren kontserbazio-egoera oso ona da, eta Thu Bon ibaiak zeharkatzen du. Portu-hiri zahar haren historia kosmopolita bere arkitekturan agertzen da, garai eta estiloen nahasketa baita: zurezko txinatar tenplu eta dendak daude, Frantziako eraikin kolonial koloretsuak, Vietnamgo etxe tubularrak eta Japoniako zubi estali deigarriak (konpontzen ari ziren eta ezin izan genuen begietsi, mural handi batean bakarrik).

Hiri txiki eta turistiko haren gauzarik deigarriena koloretako faroltxoak dira. Ehunka faroltxo aurki daitezke denda, etxe, jatetxe, kale, night market edo egunero ilunabarrean Thu Bon ibaia zeharkatzen duten eta ikuskizun paregabea eratzen duten ehunka ontzi txikitan.

Han gure egonaldia amaitu aurretik, egun bat osorik libre genuen hiri eder hartaz, herrialde zoragarri hartaz eta bertako biztanle guztiz adeitsuez gozatzen jarraitzeko. Bakoitzak bere lehentasunen arabera: edo museoak, edo arte-galeriak, edo erosketak, edo igerilekua eta erlaxazioa hotelean, edo masajeak, ...

... eta pena handiz utzi genuen Vietnam, baina beste herrialde bat, Kanbodia, ezagutzeko asmoak sortzen zigun ikusminarekin. Hoi Anetik Siem Reapera joan ginen hegazkinez.

Siem Reap probintziako hiriburua da, 130.000 biztanle ditu eta Unescok 1992an Gizateriaren Ondare izendatu zituen Angkor-eko Tenpluetara sartzeko atea da.

Kanbodia bisitatzeari ekin genion hiritik 50en bat km-ra dagoen **Tonle Sap** aintzirara joanez, eta itsasontzi txiki batean Kompung Khleang ur gaineke herria ezagutu genuen. 800 familia inguru bizi dira bertan, zurezko pilote luzeen gainean batzuk, eta etxe flotagarrietan beste batzuk, eta bertan ur gainean dauden eskola eta supermerkatua ere ikusi ahal izan genituen.

Paisaia ikusgarria da, baina, halaz guztiz, eguneroko bizitzaren gogortasuna ere nabaritu genuen.

Arratsaldean, **Ben Mealea** tenplua (tenplu abandonatua eta oihanak ehunka urtez irentsia) eta **Banteay Srei** tenplua (emakumeen gotorlekua eta khemer artearen harribitxia) bisitatu genituen.

Siem Reapeko bigarren eguna Angkor-eko eraikin-multzoari eskaini genion erabat.

Angkorreko tenpluak Khemer Inperioaren une gorenekoak dira (XII. eta XIII. mendeetakoak), bere garaian, erreferente ekonomiko, kultural eta militarra izan zelarik. Ikusi genituen:



Tam Coc



Tumba de Khai Dinh



Vista de Bangkok desde el río Chao Phraya



Dam Lap An



Hoi An



la Phnom



Mercado flotante



Vistas desde Mua Cave



- **Angkor Wat tenplua:** Vishnu jainkoari eskainia, eta mundu modernoko zazpi mirarietako bat. Ehunka mila pertsonak eta 40.000 elefante lan egin omen zuten bertan.
- **Ta Phrom tenplua:** oihanaren irudi harrigarriak eskaintzen ditu, benetan 'irensten' ari baita eraikinak.
- **Bayon eta Baphuon** tenpluak, baita Elefanteen Terraza eta Legenardun Erregearen Terraza ere.

Goizeko 4:30ean jaiki behar izan genuen arren, egunsentia ikus- teko aukera izan genuen Angkor Waten. Miretsi genuen ikuskizu- nak betiko iraungo du gure erretina edo betsareetan.

indochina-18Egunak aurrera zihoazen, eta hainbeste irudi eta oroitzapen genituen asimilatzeke, ezen oroimen-ahalegin bat egin behar baitzen bizitakoaren xehetasun bakar bat ere ez galtzeko. Horrela, gure bidaiaren azken-aurreko etapara abiatu ginen, Bangkokera, Thailandian.

Ordu arte ikusitakoari apur bat kontrajarrita, Bangkok metropoli handi bat da, 6 milioi biztanle baino gehiagokoa. Alde batetik, modernoa, etorbide handiak dituen, merkataritza-guneak, me- troa, skytrain, skywalk (erdian hainbat mall lotzen dituzten oi- nezkoentzako pasabideak), Chao Phraya ibaian zehar garraioa, eta bestetik, tuk-tukak dituzten hiri asiarren zalaparta, janari-pos- tu ibiltariak, azokak eta hiriaren gune historikoa, Errege Jauregi Handiak irudikatzen duena, XVIII. mendearen erdialdetik XX. mendearen erdialdera arte errege-bizileku izandakoa.



Jauregi Handia eraikin ugari eta ikusgarri osatutako multzoa da, non Buda Esmeraldaren tenplua dagoen Wat Phra Kaew ten- pluan. Esparru hartan paseatzeak beste garai batekoa den eta gaur egun pentsaezina den bizimodu batera eroaten zaitu.

Bangkoken Chatuchak azoka dago, Thaiandiako handiena, 15.000 postu baino gehiagorekin. Bertan denetarik eros daiteke, artea, antigoaleko gauzak, moda, janaria... eta askoz gehiago.

Erdialdean oinez ibili behar da skywalken, eta bidaiatu skytrai- nen, metroan, baita tuk-tukean ere; Chao Phraya Express erabili behar da ibaian zehar, hiriaren ikuspegiak desberdinak dira, eta batez ere ilunabarrean hiriaren argia ikusgarria da.

Beste egun batean, atzean utzi genuen Bangkok dardarkari eta zalapartatsua, Damoen Saduak ur gainera azoka ezagutzeko (bertan, bai erosten dutenak, bai saltzen dutenak, txalupa edo itsasontzietan mugitzen dira, ibaietan eta ubideetan barrena); baita Mae Klong trenaren azoka ere (trenbidean kokatutako toki- azoka da, eta trena igarotzen den bakoitzean —este dut egunean 8 aldiz—toldoak, postuak, salgaiak ... kendu egiten dira, eta iga- ro ostean berriz jartzen dira). Bitxia da eragiketa hori azkar, se- gundo gutxi batzuetan, egiteko prestatuta duten sistema.

Eta horrela Bangkok utzi genuen, etxerako bidean gure azken es- kalara, Istanbulera, iristeko. Arratsalde bakarra genuen, eta Mes- kita Urdinetik eta Santa Sofiatik paseatzeko, Bosforo miresteko, Galatako zubian arrantzaleak ikusteko eta Espezien Azokara iris- teko aprobetxatu genuen.

Azaroaren 22an, asteazkenean, etxera itzuli ginen, ahaztuko ez ditugun bizipenez beteta.

Herrialde bakoitzeko esperientzia laburtu beharko banu: Viet- namen Hanoi anabasa eta zalaparta azpimarratuko nuke, Halong eta Ninh Binh-en edertasun naturala, Hoi An argitsu eta lasaia, baina, batez ere, vietnamdar jendearen begikotasun eta adeitasuna; Kanbodian Angkorreko tenpluen handitasuna eta Angkor Wateko egunsentia nabarmenduko nituzke, ahaztezina!!! Bangkok hiria izugarria, dirdaitsua, gaztea, ikaragarria, erakarga- rria, kaotikoa... dela esango nuke; eta azkenik, Istanbuli buruz, hiri hau beti (letra larri) bisitatzea merezi duela besterik ezin dut esan.

Eta, amaitzeko, esan beharra dago zoragarria eta zorte handia izan dela esperientzia hau hain jende bikainarekin partekatu iza- na.

Ehkb/Uce-ri egindako erreklamazioen txostena (2023)

asojubi | Argitaratuta 24 otsaila, 2024

2023an, bidaien eta hegaldien inguruko erreklamazioek gora egin dute, eta horrelako 5 erreklamazio izan ditugu. Horietako 2 auzitara joan dira, eta beste hirurak auzibidetik kanpo konpondu dira.

Telefonia dela eta, 3 erreklamazio izan ditugu, eta auzibidetik kanpo konpondu dira.

Hipoteka-gastuen kontura 43 pertsonari lagundu diegu hipoteka eratzeko gastuen erreklamazioagatik, batzuei bankuak auzibidetik kanpo ordaindu die, baina gehienek auzitara joan beharko dute.

Egia da jendea abenduko azken hilabeteetan eta urtaril hasieran animatu dela etortzera preskripzioaren gaiarekin.

Eta arauzko denbora itxaron behar dugunez bankuak erantzun dezan, ezin dut askoz datu zehatz gehiago eman, zenbatek jaso duten dirua auzibidetik kanpo eta zenbatek joan beharko duten auzitara.

Auto-kartelaren gaiari dagokionez, badira auzibidetik kanpoko erreklamazioa hasi duten pertsonak.

Gai hau oso motel doa, badugu Asojubiko kideren bat edo beste dagoeneko epaia emanda duena, baina, egia esan, kasu bereziren bat da, oso pertsona gutxi dira.

Gai hau luzea eta aspergarria izaten ari da, hainbat arrazoiengatik.

Epaileek ez dute ezagutzen.

Fabrikatzaileak buruhauste ugari ari zaizkigu sortzen; izan ere, kontrako alderdien adituek jakinarazten digutenez, auzietara eramaten dugun peritu-txostena Espainian merezi duten bakanetarikoa da. Beraz, gure aurka egiten duten lana izapide edo tramitea ahal den guztia luzatzea izaten da, ez dakit gu nekarazteko edo zuek.

Hasieran, demandaren sorlekuaren inguruan borrokatu behar izan genuen, eta Auzitegi Goreneraino eraman ziguten gaia. Auzitegi Gorenak, Bizkaiko zenbait kasuren ondoren, jatorri-lekua kontsumitzailearena zela ebatzi zuen. Beraz, Bizkaiko merkataritza-arloko epaitegietan sartu behar izan genituen demandak berriro, Gorenera eramandako izapide guztiak onar zitzaten.

Gero, erreklamazioaren preskripzioa aztertu behar izan zen. Fabrikatzaileek baieztatzen dute beren kasuak preskribatuta daudela.

Gipuzkoan eta Araban, auzitegi probintzian helegitea jarri ostean, epaileek adierazi dute ez dagoela preskribatuta, eta, beraz, bi probintzia horietan gaia dezente kontrolatuago dago, epaileek ez dagoela preskribatuta erabakitzen dute eta erosketa-fakturaren eta interes judizialen ehuneko kopuru bat aplikatzen dute.

Bizkaian, aldiz, dauzkagun merkataritza-arloko hiru epaitegietatik bik EAEko beste bi probintzietan bezala baloratzen dute egoera, baina hirugarrenak ez dauka argi; beraz, gure probintzia-auzitegiak preskribatu gabe dagoela deklaratu arte —eta badirudi horrela izango dela— itxaron egin behar dugu, Bizkaian lasai lan egiten utz diezaguten eta merkataritza-arloko epaitegi jakin horretan trabarik jar ez diezaguten.

Egia da zaila dela ulertzea Euskal Autonomia Erkidegoan dauden merkataritza-arloko epaitegi guztiek ikuspegi bera izatea, batek izan ezik, eta hori kontsumitzaileari helaraztea zaila da.

Bi urte hauetan gai honekin izan dugun irmotasun eta iraunkortasunarekin jarraituko dugu lanean, nahiz eta, denbora aldetik ikusita, oso neketsua izan.

Oso motel doa fabrikatzaileek eta orain justiziak jartzen dizkiguten oztopoengatik, baina guduak irabaziz goaz, eta gerra irabaztera ere iritsiko gara



Resurrección

por Fernando Urien | Argitaratuta 3 apirila, 2024

Iluntasuna dantzan zebilen gaueko hotzaren eta goizeko antzigarraren artean. Bilbo elurtuta zegoen. Hirian brisa hotz-hotza arnasten zen, zuhaitzen adar hostogabeetatik zintzilik zeuden izotz-burruntzi finak dardararazten zituen, eta hiriko etorbi-deetan zehar musika sortzen zuen, inork dantzatzen ez zekien musika. Kristalezko zoruak dir-dir egiten zuen, non oinetakoen zolek irrist egiten baitzuten berokietan bildutako egitura ameslariak eroraraziz. Ez zekiten ibiltzen halako araztasunaren, Bilboko kale guztiak estaltzen zituen soropil zurbilaren araztasunaren, gainean. Kotoi izotzuzko estalkiaren azpian desagertzen ziren autoak. Gabon-kantak abesten zituzten? Ez dakit, baina izarrek ñir-ñir egiten zuten zeruan, betiereko iluntasunean, begi-kliska baten eritmoan. Ilargiak are gehiago zuritzen zituen bazter lokartuak. Hotza bete-betea jausten zen kristal gardenezko horma finek egindako musikan koloretako distiren bila ausartzen ziren oinezko bakanen gainera.

Zeru goiko isiltasuna entzun ahal izan nuen eta atzera begiratu nuen hiriko argiak ezkututzen zidan amildegi iluna ikusteko. Banekien gure zerizana han zegoela, ilargiaren eta infinituaren distiren ondoan, ametsek mugarik ez duten eta itxaropenek denbora zertzen duten leku hartan.

Argi izpi batek, mendi artean, egun berriaren sinfonia abestu zuen. Ilargiak Ortzadar bat eratzen zuen Bilboko itsasadarreko urak estaltzen zituen plaka izotzuaren gainean. Zakur baten zaunka eta txori baten hegada entzun ziren. Antzigarrak airea urratzen zuen, lurlean nenbilen bitartean Nerbioi gaineko izotz-kristal gogorrera iristeraino. Farolen argiak segizioan dantzatzen zuen itsasadarren gainean. Zeru suta zegoen mendi ilunen

atzean. Brisa ibai izotzuaren gainean irristatzen zen gaueko azken musika-noten bila.


Zirriborro argitsu batek nire irisa ukitu eta oroitzapen galdu bat iratzarri zuen, non oihuek isiltasuna hausten zuten eta espasmoek jaiotzen laguntzen zidaten. Lehen aldiz ikusi nuen argia eta musu baten beroa. Nire baitan arakatzen ari zen arrosa baten antzigarraren xuxurlak eta lurrinak besarkatu ninduten. Lo-kanta bat entzun zen eta amaren bularrak xurgatu nituen. Lasaitasuna erori zen nire gainera. Begiak itxi nituen. Eguzkiarekin eta txori baten kantuekin amets egin nuen. Bakea usaindu nuen, betiko lurrin gozoa nire oroimenean.

Txakurraren xuxurla itzuli zen, isiltasunaren lurrinari jaramonik egin barik, Nerbioiko izotzaren gainean zebilen jolasean. Animalaren oihartzunek gauaren lasaitasuna astindu zuten. Hotza areagotu egin zen eta kanixe txikia ikaratu. Iluntasunak gogor kontra egiten zion egun berriaren itxaropen ahulari. Zaunka herabe batek usoen hegaldia esnatu zuen. Airea zaratsatu entzun zen eta txakurkumea indarrez eroan zuen arrastaka. Ez zen gehiago zaunka egitera ausartu, haizearen kontra uzkurdu eta ulu egin zuen izuturik. Ilargiak kontsolatu egin nahi izan zuen argi eginez. Nire belarria samurtu egin zen eta nire patuaren sinfonia entzuten hasi zen. Lasterka joan nintzen elurretan eta ibaiko kristal gainean. Ilargitearen soinuan ibili nintzen irristatzen, eta nire arropa zeharkatu eta gorputza jeltzen zuen brisa baten soinuan. Txori bat hegaldatu zen txakurraren inguruan. Izotz puska bat erori zen itsasadarren gainera eta kristalezko kapa hautsi zuen. Pitzadurak ispilu hotzean zehar joan ziren. Gauak dar-dar egin zuen, zerua isildu. Pitzadura ireki zen zakurraren hankapean, Nerbioiko urek arrastaka eroan behera eta errukirik gabe irentsi zuten. Isiltasuna itzuli zen. Sinfonia anker bat itsasadar gainean irristatu zen, bere notak kizkurtuz, lurra zatituz. Nire oinetan zabaldu zen kristala, kirrinkari entzun zen haustura lakarra. Ilargiak aurpegia ezkutatu zuen. Izarrek koloretako mantu bat marraztu zuten zeruan. Ostadarra lehertu eta atalduta erori zen. Itsasadarrek nire arropa busti zuen eta hotz hezea mila orratz fin bezala sartu zitzaidan larruazalean. Zeru desagertu zen, eta isiltasuna nagusitu. Nire begietara ez zen argia iritsi, urak kristalezko sabaia zuen eta ezin izan nuen hautsi. Gauaren amildegira erori nintzen astiro-astiro. Nire bihotzak ez zuen hainbeste hezetasun, hainbeste hotz, hainbeste iluntasun, hainbeste isiltasun jasan. Urruneko musika batek baretzen zituen nire ametsak: isilik, isilik, isilik...

Berriro ikusi nuen argia lehen aldiz eta musu baten beroa. Nire baitan arakatzen ari zen arrosa baten antzigarraren xuxurlak eta lurrinak besarkatu ninduten. Lo-kanta bat entzun zen eta amaren bularrak xurgatu nituen. Lasaitasuna nire gainera erori zen eta begiak itxi nituen. Eguzkiarekin eta txori baten kantuekin amets egin nuen. Bakea usaindu nuen, betiko lurrin gozoa nire oroimenean.



ARACELI, PAGASARRI ETA BIODIBERTSITATEA



“Juanjo, animatuko al zara aldizkarirako artikulu bat idaztera?”. Araceliren ahotsa zen, ezti eta gizabidetsua, beti legez. Agur esateko unean izan zen, Arraizko Galizia Etxean. Ahots irmoa ere bazen, beti bezala. Ordu batzuk lehena-go, ohi bezala, Indautxuko plazako metroaren sarbidean elkartu ginen Pagasarri igotzeko asmotan. Ez genuen ezer utzia zoriaren esku: plana ezin hobeto moldatua zegoen, ibilbidea erabakita, eguraldi ona eskatuta,...

Pagasarriren erakargarritasuna, neurri handi batean, bere aniztasunean datza: bizimoduetan (Bolintxu, hiritik hain gertu, gune pribilegiatua da alde horretatik), bideetan, zokoguneetan, askotariko paisaietan, ... Beraz, gure asmoa, beti bezala, biderik jendetsuena saihestea zen: Artabeko pista, Pastorekortako lepoa eta Zollo aldera dagoen labar gaineko harkaitza aukeratu genituen, gailurrera iristeko eta gero aterpetxera, tortilla eta txorizo egosiz hornitua egongo baitzen... Plana ezin hobea zen.

Baina gero dena okertu zen. Eta ondo baino hobeto prestatua genuen! Une batez, Guardia Zibilak duela urte batzuk Araban jarri zuen operatibo bat ekarri zidan gogora egoera hark.

Kontatzen dutenez, Gasteiztik Estibalizko santutegi aldera ihes egin zuen lapur-talde bat harrapatu nahi izan zuten. Eta Beneméritak, dirudienez, eremu batean inguratu zituen ezin hobeto: errepide, basabide eta bidezidor guztiak moztu zizkieten, ihesbide barik utziz. Setioa estutuz joatea besterik ez zuten egin behar, minutuak beharko zituzten horretarako eta ez orduak. Dena ondo egina zuten, baina gauza harrigarri bat gertatu zen: lapurrek egin zuten txarto. Esparru kontrolatuaren barruan kokatu beharrean, kanpoan kokatu ziren. Akats barkaezin hori egin zuten eta, ondorioz, ezin izan zituzten harrapatu.

Gure akatsa klaratarrak kontuan ez hartzea izan bide zen. Ai, klaratarrak! Gotzain frankista-zismatikoaren istilu horrekin ez genizkien klaratarrei arrautzak eroan. Batek daki! Beharbada hori izan zen ondoren etorri zen guztiaren jatorria. Hasteko, aterpetxea itxita omen zegoen ur-hodietan izandako matxura baten ondorioz, eta, beraz, ezingo genuen ohiko mokadutxo egin: txorizo egosia eta tortilla, alegia.

Eguna, gainera, oso euritsua zetorren. Zikloi, lurrikara edo, auskaloi, beste hondamendi beldurgarriren bat ere ezin genuen baztertu.

Okerrenerako prestatu ginen eta, hala eta guztiz ere, 20 zoro baino gehixeago Eskurtze eta Larraskitutik gure mendia-
ren lehen adarretara abiatu ginen.

Euriak ez zuen atertzen, eta gu, blai egin ahala, espezie baten, “sapiens”aren, barruko biodibertsitate ezkutua ere ezagutuz joan ginen.

- Aizu, euriak horrela jarraitzen badu, agian hobe dugu Artabeko pista eta abar utzi eta bide erosoenetik joatea.
- Biderik erosoena erosoena da, baina ez motzena. Aldatu behar badugu, eta horretara jarrita, goazen laburrenetik.
- Bai zera! Horrelako eguraldiarekin, lokatza handia izango da hor.
- Aizu, eta gainera aterpetxean ezin badugu ezer jan, zergatik ez dugu plana aldatzen, Arraizera joan eta han mokaduren bat egiten Galizia Etxean? Harainoko bidea ere oso polita da...
- Zer diozu! Pagasari da helmuga, goazen Pagasarri eta, gero bai, joango gara Arraizera, baina Pagasarri igo ostean.

Dena txarto buka zitekeen. Niri neuri, taldean noanean, ez zait gustatzen ez inor gehiegi aurreratzea, ez inor atzean uztea, ez taldea zatitzea. Are gutxiago, euria eta lainoa dagoen egunetan. Eta banantzea baino amore ematea nahia-go duen koldar horietakoa naiz.

Baina sapiensen aniztasunarekin topo egin genuen eta, nola ez, beraien adin-nagusitasunarekin; beraz, azkenean, zatiketari... amore ematea beste erremediorik ez zen izan: talde bat Pagasarriko zelaira eta aterpetxera abiatu ginen, eta bestea, berriz, zuzenean Arraizera.

Azkenean, denok Arraizen elkartu ginen berrira eta, bukaerako agurrean, betiko tonu leun eta gizabidetsuarekin, beti bezain irmo, berrira entzun nuen Araceliren ahotsa: “Juanjo, mesedez, anima zaitez elkarrearen aldizkarirako artikulua idaztera”. Baietz erantzun nion, adeitsu eta uzkur, nahiz eta biok jakin zorioneko artikulua ixaron egin beharko zuela.

“Juanjo, artikulua, arraioooooooooal!”. Hilabete pasea zen eta ahots hura eta doinu hura ez ziren Aracelirenak. Txema Múgica aluarenak ziren (horrela idazten genuen, “Múgica”, biok Patronatuan ikasten genuenean –berak probetxu gehiago ateratzen zion–). Hitz eman nion egun pare batean egingo nuela... baina amaitzerako zazpi izan ziren.

Eta azkenean, Guardia Zibilak Arabako atrakatzailerei egindako itxitura edo setioan bezala, apirilaren 18 euritsu hartan Pagasarrin bezala, hainbeste eremutan maiz gertatzen den legez, ustekabeak astindu gaitu eta, batez ere, Araceli astindu du.

Orain, Araceliren ahots leun, gizabidetsu eta tinkoa luzaroan entzuten jarraitzea espero dut nik, eta grazia hori lortzea espero dut. Eta espero dut, baita ere, heriotza gurtzen duten gizatar horiek guztiak desagertuko direla lurraren gainetik, edo, behintzat, ez dezatela inoiz atsedetik izan bertan. Baina jakin badakit ez dudala grazia hori lortuko.



Bailen kalea 9 Bilbo
Restaurante
Tfnoa 94- 4979269
RESERVAS por wasap
672421141

Desde Aebbk ponemos a disposición de las empleadas cursos de Euskera (nivel iniciación-básico).

Las clases se impartirían desde Octubre hasta junio.

- Dos sesiones de dos horas a la semana. (Mínimo 9, máximo 13 personas)
- 6 horas de tutoría para cada alumna/o durante todo el curso (en grupos de dos para desarrollar la oralidad).

Inicialmente habría dos opciones. Horarios de mañana: 10-12h y de tarde: 15-17h

Las clases serán impartidas por profesionales de Ulibarri Euskaltegia con material propio.

El precio anual sería aproximadamente de 75 euros.

Todos las/os interesados podéis hacernos llegar vuestro interés a: aebbkeuskera@gmail.com

(Si no podéis acudir en dichos horarios y queréis apuntaros hacendnos llegar vuestra disponibilidad. Y si hubiese coincidencia con más interesados, lo intentaríamos)

Eskerrik asko, Animo!!!



Desde el Club Social de BBK (AEBBK) se han dirigido a nuestra Asociación para ofrecernos la posibilidad de apuntarnos a cursos de yoga y euskera; se trata de nuevas actividades que quieren potenciar y formar a partir del próximo mes de setiembre.

Os adjuntamos la documentación recibida de AEBBK, donde se indican las especificaciones de cada curso.

Ambos cursos se llevarán a cabo en los locales del Club Social de BBK en Bailén, 9 - Bilbao

Quienes tengáis interés en alguno de estos cursos, podéis contactar directamente enviando un correo electrónico a aebbkyoga@gmail.com (cursos de yoga) o a aebbkeuskera@gmail.com

¡¡¡ Ánimo!!!



Bailen kalea 9 Bilbo
Restaurante
Tfnoa 94- 4979269
RESERVAS por wasap
672421141

Desde Aebbk ponemos a disposición de los empleados cursos de yoga.

Las clases se impartirían desde mediados de setiembre hasta mediados de junio. (Mínimo 8 máximo 10 personas)

Inicialmente habría tres opciones cada una de 1 hora 15 minutos semanales.

Lunes de 17h a 18,15h

Miércoles de 15,30h a 16,45h

Jueves de 11,45 a 13,00h

El precio mensual sería de 50 euros. Si el empleado se ha dado de alta en DAD-Kutxabank (Es gratuito) recibiría la ayuda correspondiente a curso anual. (150 euros máximo)

En junio habrá disponibles unas jornadas gratuitas para conocer el yoga para aquellos que nunca lo han practicado. Se os informará a los interesados.

Todos los interesados podéis hacernos llegar vuestro interés a: aebbkyoga@gmail.com

(Si no podéis acudir en dichos horarios y queréis apuntaros hacendnos llegar vuestra disponibilidad. Y si hubiese coincidencia con más interesados, lo intentaríamos)





BBK KLUB SOZIALAREN JANGELA

por Jesus Maleta | Argitaratuta 2 urtarrila, 2024

etapa berria

Gure kolektiboaren zati handi batek inoiz erabili izan ditu BBKren Klub Sozialaren instalazioak eta jarduerak, bai gure garai profesionalean, bai gero erretiro-egoera iritsi ostean.

Eta gehien erabili den “jarduera” jantokia izan da, batez ere lanaldi zatituko egunetan edo lankide, lagun edo senideekin batera enkarguz otorduak egiteko.

21 Gure gogoan gordetzen ditugu han kudeatzaileen — Txaro, Carmen, Jesus eta familiaren—lan onari esker partekatu ditugun une atseginak.

Baina denbora joan egiten da eta, zeuen esperientziagatik dakizuenez, erretiroa hartzeko unea iristen da.

Eta hor gaude.

Erretiroa hartu digute.

Kasu horietan ohikoena zerbitzua amortizatzea izaten da... eta “agur eta kitol”; horrela, gure txokoa eta lankide ohien topagunea galdu egingo zen.

Baina... zorionekoak gu! !



Erreleboa hartu du jende ekintzaile eta eskarmentudunak, eta urritik hasita arreta bikaina eskaintzen digute.

Maria, orain jangelaz gozarazten diguna, lantalde on baten buru da, sukaldean eta instalazioetan estilo berria duelarik.

Ahoz aho zabaldu da berria, eta berriro ikusten ditugu han mahuka-hutsik gorbatahun (edo gabeko) “kotizatzaileak”, gaur egun gure lanpostu zaharrak “zaintzen” ari direnak. 21

Eguneroko menuak gustagarriak dira, eta tratua adeitsua eta arina da giro atseginean, eta prezio ezin hobeak dituzte: eguneko menua 12 € eta menu exekutiboa 18 €.

Beti bezala, telefonoz deitu behar da bazkaltzera zenbat joango garen jakinarazteko: tfnoa. 944792440

Bilboko Bailen kaleko 7. eta 9. atarien arteko atetik dago lokaletara sarbidea. Txirrinean BBK anagrama agertzen da.

Bestalde, azpimarratuko dugu menu berezien eskaintza oso interesgarria dutela, baita babarrun edo indaba-jana ere ‘sakramentu’ eta guzti, eta txuletoia, aldezturik hitzartu daitezkeenak, 24 eta 47 € arteko prezioekin.

Eta hemen dator interesgarriena, enkarguzko bazkari eta afariak ere bai.

Dena prest, eroago dugun taldearekin tarte bikain bat pasatzeko.

Gaur egun astelehenetik ostiralera dago irekita, baina zerbitzu-egunak gehitzeko asmoa dago, eta laster astea osotuz joango da.

Ba, besterik ez. Ea hantxe elkar ikusten dugun!

Eta on egin!



BAGAN

por Jorge Ibor | Argitaratuta 8 urtarrila, 2024

Antzinako Birmaniako zenbait erresumaren hiriburua izan zen. Inguruetan 4.000 tenplu budista baino gehiago eraiki ziren XI. eta XIV. mendeen artean, batez ere Anawrahta erregearen bizialdian eta haren babesarekin.

22 Anawrahta Minsaw (Bagan 1014 – 1077) birmaniar aberriaren aitzat hartzen da.

Pagan izeneko erresuma sortu zuen, Irawadi ibaiaren inguruko lur guztiak bateratuz, eta beste eskualde periferiko batzuk jarri zituen bere agindupean.

Haren tronuratzeak Birmaniako Historiaren hasiera markatu zuen 1044. urtean.

Bere garaian, Pagango erresuma, khemerrenarekin batera, Indotxinako indartsuena izan zen.



Uno de los muchos templos de Bagan

Marco Polok hiri hau ezagutu zuen eta txundituta geratu zela idatzi zuen. Garai hartan 14.000 tenplu baino gehiago izan zituen. Gaur egun 4.446 gelditzen dira zutik, gehienak bisita-garriak. Zonaldeko sismikotasunak eragina izan du murrizketa horretan..

Marco Polok (Venezia, 1254 – 1324), merkataria eta bidaiari ospetsuak, Rustichello de Pisari –Genovako kartzelako ziega-kideari, non pare bat urte eman baitzituen preso bere bizitzako azken urteetan– diktatu zion gure artean “Marco Poloren bidaiak” izenez ezagutzen den bere kontakizun ospetsua.

Bertan haren odisea kontatzen da, 15 urte zituela hasi zena; aitak eta osabak erabaki zuten Ekialde Urruneko herrialdeetarako itzuleran eramango zutela; izan ere, herrialdea haiekin merkataritzan ziharduen Venezia Zetaren Bidean zehar, oihal aberats eta finak ez ezik, garai hartan hain miretsiak ziren espezia eta beste produktu batzuk Mendebaldera ekartzeko.

Bere kontakizunean esaten digunez, 19 urte eman zituen Kublai Khan mongoliar enperadorearen gortean Pekinen, eta garaiko txinatar-mongoliar kulturaz blai egitea lortu zuen.

Liburuan, besteak beste, kontatzen digu Khan handiaren aholkularia izan zela hiru urtez, Txinako hiriak hartzen lagundu zuela setio-materiala eraikitzen lagunduz, eta gortean bolboraren erabilera baketsua ezagutu zuela, baita diru-paperearena eta espagetiarena ere (badirudi hori ez dela egia), beste hainbat beritasunen artean.

Aurkikuntza handia gertatu zitzaidan Gari Jennings-en “The Journeyer” (El Viajero – Marco Polo) izeneko eleberririko bikaina irakurtzea, eta asko ez dela berrirakurri dut.

Behin baino gehiagotan planteatu zen Bagan Gizateriaren Ondare izendatzeko aukera, baina hori ez zen gertatu gu iritsi aurretik, bere garaian boterean egon ziren militarrek egindako berreraikuntzek ez zutelako behar besteko kalitatetik.

2019an, gure bidaiatik bi urtera, tenplu-eremu hori Gizateriaren Ondare diren monumentuen artean sartzea lortu zuen Myanmarreko gobernuak.

Unescok honela definitu du:

Myanmarreko erdialdeko lautadan, Irawadi ibaiaren ezkerreko ertzeko bihurtune batean kokatuta, Bagan leku sakratua dago. Hango paisaia obra artistiko eta arkitektoniko budista bereziki ugari eta askotarikoak daude.

Zortzi elementuz osatuta dago, eta tenplu, estupa, monasterio eta erromesaldi-leku ugari daude, baita aztarna arkeologikoak, freskoak eta eskulturak ere. XI. eta XIII. mendeen artean, Bagan antzinako hiria buda-inperio garrantzitsu baten hiriburua zenean, eskualde hartan loratu zen zibilizazioaren lekukotasun ikusgarria da. Inperio hartan erlijio-jaiara zein bizia zen adierazten du dauden monumentu arkitektonikoen multzoak.

Bere kontserbaziorako arazorik handiena aldiro-aldiro astintzen duten lurrikarak dira. XX. mendean, adibidez, 500 baino gehiago zenbatu ziren inguru hartan, eta okerrera 1975eko bat izan zen, Richter eskalan 8. mailara iritsi zena, eta giza kalte eta kalte material handiak eragin zituen.

Bereizi egin behar dira “Bagan berria” eta “Bagan zaharra” izeneko hiriak, biak elkarrengandik oso hurbil daudenak. Biak txikiak izanik, berria bizi dira gehien, 92.000 pertsona inguru, eta zaharra ia abandonatuta dago militarren garaitik.

Hiri horretan argazki bat erosi genion oso profesional ohoratu bati. Gehiegi ordaintzeaz gain, etxera iristean konturatu gara bere tamainak ez dituela hemen salgai dauden markoen neurri estandarrek betetzen.



Arraina saltzen

San Yuri esan genion tokian tokiko ohiturak ezagutzea gustatzen zitzaigula. Eta, gure ustez, hori egiteko modurik onenetako bat herri edo hiri bakoitzeko azokak goizean goiz bisitatzea zela, jende gehien erosten ari zenean.

Baganeko azokara joanez hasi genuen eguna. Saltokien artean ibili ginen, produktuak lurrian trapuen gainean edo zurezko kaxen gainean jarrita zeuden, asfaltatu gabeko eta osasun-neurri gabeko esparru batean.

Behin eta berriz galdetu genuen zer zen halako edo bestelako zera hura. Batean, fruta eta barazkiak, arrain lehorrak eta espeziak saltzen ziren postu ugari ikusteaz gain, ontziratu gabeko olioien salmentari beha egon ginen, bereziki kakahuete-olioa zen, Mediterraneanetik hain urrun dagoen eta gure oliba-zuku preziatua ezagutzen ez duen herrialde hartan gehien erabiltzen dena.

Puntu honetan ohitura bikain bat hartu genuen: geure aurrean egindako txurro edo borrekin tea hartzea; jarleku txikietan eserita kontsumitzen genuen, oso aulki eta mahai baxuak izaten genituen eta.

Higienetik ezak inguratzen gintuen. Nahiko hondatuta zeuden katilu eta mahai-tresna urriak garbitzeko, bi balde erabiltzen zituzten: bata urarekin, eta agian iraganeko uneren batean xaboi pixka batekin, ustez, ontziak xabotzeko; eta beste bat urarekin bakarrik xaboa kentzeko, baina, elementu likido edo isurkariaren kolore eta uhertasunetik ondorioztatu genuenez, ez zuten aldatzen desiragarria litzatekeen maiztasunez.

Heldulekueetatik oratuta, katilua segundo batzuez murgiltzen zuten lehenengoan, eta berehala errepikatzen zuten ekintza bigarrenean, xaboa kentzeko, antza. Uste dut simulakro hutsa zela egiten zutena.

Txurroak arroz-irinezkoak eta kakahuete-oliozkoak zirela deduzitu nuen. Haien elikaduran oso ohikoak diren produktuak direlako, besterik gabe.

Zalantza barik, merkatuetako onena bertako jarduera zen, produktuak beren usain eta koloreekin, eta erosleak eta saltzaileak ekinean ikustea.



Shwe Zigon pagoda

Ondoren, Shwe Dagon pagoda urrekara ikustera joan ginen, Bagango benetako harribitxia, 900 urte baino gehiago dituen. Eraikuntza, lehen aipatutako Anawrahta erregearen agintaldian hasi zen, eta haren seme eta oinordekoak amaitu zuen.

Erdiko estupa, ohi bezala, tenpluz inguratuta dago. Barruan Budaren hartz bat eta hezur bat omen daude.

Hainbat lurrikarak kaltetu dute. Goiko aldea zaharberritzen ari ziren. Beheko terrazak dira zaharrenak.

Pagoda inguruan 37 nat daude eta, beste behin ere, esparruaren zaindariak dira. Haietako batzuk fededunek gurtzen dituzte dohaintzak eginez, batez ere eskudirutan, babesa lortze aldera.

Tenpluetako batean, aita baten irudia, eskuinean semearena zuena, gurtzen zen, barrutiaren santu ongileak baitziren. Jarraitzaile dezente dituztela egiaztatu ahal izan genuen, batez ere lehenak, irudi bakoitzaren ondoan zeuden ontziek erakusten zuten bezala, haietan, kopuru txikitik bada ere, modu jarraituan dirua sartzen baitzen.

Hurrengo bisita Dhamyangyi pagodara izan zen, “pagoda krudela” ere deitua. Narath erregeak agindu zuen eraikitzea 1167. urtean, zeudenen artean handiena izan zedin. Hil zenean proiektua bertan behera utzi eta osatu gabe geratu zen, gutxi gora-behera orain ikusten den bezala.



Erromes bat diru-eskaintza egiten

Errege hura aita eta anaia nagusia, legezko oinordekoa, hil ostean iritsi zen tronura. Entzutetsua izan zen haren erregealdia, bere menpeko eta etsaiekin erabilitako metodo krudelengatik.

Bere bizitzako azken urteetan damutu egin zen bere portaeraz, berraragitzean izan zitzakeen ondorioen beldur, eta, beraz, merezimendu handiak egitea erabaki zuen, bere edertasunagatik eta, batez ere, tamainagatik nabarmenduko zen pagoda bat eraikiz.

Baina ez zuen bere gogorkeria guztiz alde batera utzi. Adibidez, erabat adreiluz egina dago, eta eraikuntza-garaiaren adreiluen artean gehieneko distantzia bat ezarri omen zuen. Akatsen bat baldin bazegoen, nahiz eta oso txikia izan, igeltseroari, gainerako langileen aurrean, atzamarrak mozteko eta barruko hormen artean geratzen ziren hutsu-neetara botatzeko agintzen omen zuen.

24 Tenplura lau sarreretatik sartzen da, ohi bezala lau puntu kardinaletara begira daudelarik.

Budaren estatuetako bat etorri behar duenari dagokiola esaten da.



Dhamayangyi Pagoda

Goiz batean, Buda landan paseoa zebilela, bere go-goetetan barne bilduta, erreka batek zeharkatzen zuen eremu batera iritsi zen eta ez omen zuen ikusten zelan zeharkatu lokatzez zikindu barik.

Buda ikusi zuen baserritar bat lasterka joan zen ibilguan etzatera, eta esan zion: "Zeharka ezazu ur-emia zubi gisa erabiliko duzun nire gorputzaren gainean zapalduz; hori izango da niretzat bizitzan izan dezakedan ohorerik handiena".

Maisuak, detaileagatik esker onez, iragarri zion bosgarren Budak, etorriko zen hurrengoak, bera berraragitzean egingo zuela

Bisitaldian katalanen talde batekin topo egin genuen. Haien gidari birmaniarrek hitz miresgarriak esan zizkigun gureaz, izan ere, bere maisua izana omen zen.

Tenpluaren kanpoaldean txotxongilo-saltoki bat zegoen, oso txotxongilo zaleak dira bertakoak, sinpleak baina oso deigarriak diren gerlari eta nat-en irudiekin. Zegokion erosketa egin genuen.



"Txotxongilo-denda"

Jarraian, Sulamaniren tenplua bisitatu genuen. Haren argakia bidaiara eraman genuen Gida Urdinaren kontrazalean ageri da (Isabel eta Javik LonelyPlanet eroan zuten). Tenplua XII. mendean eraiki zuten, adreiluz. Goiko aldea lehen aipatu ditudan lurrikaretako batek suntsitu zion.

Ananda tenplu txundigarriarekin jarraitu genuen. Egia izanik ere informazio gehiegi jasotzen eta bisita larregi egiten ari ginela pagoda eta tenpluetara, monumentu berezia da.



Ananda tenplua (João Lopes, de flickr.com; CC BY-NC-ND 2.0)

1185ean hasi ziren eraikitzen. Budaren lehengusina eta idazkari bati, Ananda izenekoari, eskainia dago, sanskritoz 'bedeinkazioa' esan nahi du.

Haren eraikuntzak mon eta indiar estiloak nahasten ditu. "Westminsterreko abadia budista" deitzen zaio.

Barruan, Budaren antzinako irudiak daude. Gaur egungoetik alde da, funtsean, XI. eta inguruko mendeetan tu-

nikak gorputzari itsatsita irudikatzen zirela, erabat inguratuz gorputza, baina hain finak izanik zilborra eta muskulatura nabaritzen dira jantzita ere; aitzitik, estatua berriagoek jantzi lodiagoak dituzte eta eremu zabalagoa uzten dute age-rian (estali barik).

Deigarria da, halaber, Buda normalean zutik dagoela, atleta-itxurarekin.

Esaten denez, eraikuntzaren bultzatzaileak, nekez uler dai-tekeen irizpide bati jarraituz, orain “lehen harria” deituko genukeenaren azpian haur bat bizirik ehorztea erabaki zuen, zentroaren araztasuna nabarmendu nahirik eta, bide batez, bere arima nat bihurtu ostean, pagoda eta lekua zaindu zitzan.



Sulamani tenplua

Esan dezadan lehenik ez dudala neure burua espezialis-tatzat jotzen jainkoentzako sakrifizioen gai malkartsu hone-tan, eta ezagutza-maila apal batera ere ez naiz iristen gai honetan. Baina bai ikusi dut, antzina-antzinatik, gizadiak bere jendearen arteko kutun edo maiteenen sakrifizioak eskaini izan dituela, dagokion jainkoarekiko menekotasu-naren adierazgarri handien gisa.

Ezagunak dira maien kulturetan birjinen sakrifizioak edo inken kulturetan haur nobleen sakrifizioak beren morroie-kin, baita historiaurrean indoeuropar tribuek egiten zi-tuztenak ere. Edo, zuzenago esanda, kristauen jainkoak bere seme bakarra sakrifikatu zuen, “gizateriaren salba-menerako”.

Horrelako izugarrikerien artean, Mazedonian, Estrimon ibaiaren bokalean dagoen antzinako Anfipolis hiriaren fundazioa santutzeko egin zena dago:

Xerxes I.ak sortua K.a. V. mendean, Ennea Hodoio edo 7 bide (bertan bat egiten zutenak) izenez, haietako bakoitzaren hasieran purutzat jotako gazte bikote bat bizirik lurperatzeko agindu zuen erregeak.

Ez diot uko egiten Erroman jainkoei egiten zitzaizkien beste sakrifizio-mota batzuk kontatzeari, non, Erre-publikaren garaian behintzat, ez baitzen egiten hiritar erromatarren giza sakrifizioak. Baina hiritarrak ez zirene-kin eta barbaroak deiturikoekin egiteko ez zuten arazo-rik. Batez ere gurutziltzatzeen bidez.

Erromaren kasuan, animaliak erabiltzen zituzten hilketaren unean jarraitu beharreko erritu oso konplexuekin, eta amaitzeko erraiak aztertzen zituzten etorkizuna eta egin beharreko ekitaldiaren egokitasuna iragartzeko, ekintza politiko edo zibil bat izan, estatu-hileta bat edo patri-zioen arteko ezkontza bat izan.

Hemen deskribatuko dudan urteroko salbuespen ba-tean izan ezik, ez zuten zaldirik sakrifikatzen, beren ar-madan zuten paper oso garrantzitsuagatik, duda barik.

Urriko idusek (hil bereko 15ean) kanpaina militarren ga-raiaren amaiera adierazten zuten, eta egun hartan laster-keta bat egiten zen Marteren Zelaiko soropil gainean, Erroma errepublikarreko Serviar Harresien aurrean.



Ananda tenplua. Budaren bestelako irudikapen bat

Urteko gerra-zaldirik onenak binaka lotzen zitzaizkien gurdiei eta arrapaladan joaten ziren; bikote/pare ira-bazlearen eskuin aldeko animalia Urriko Zaldi bihurt-zen zen, eta Flamen Martialis edo gerraren jainkoa zen Marteren apaizak sakrifikatu egiten zuen erritualki lantza batekin. Ondoren, genitalak eta burua mozten zizkio-ten: genitalak berehala Erromako tenplu zaharrena zen Regiako etxe sakratura eramaten ziren, han odola isuri eta Vestaren Birjinei emateko, Vestarenugar sakratuan errausten zituztelarik; gero, errautsak pastel-orearekin nahasten ziren, eta Romulo lehen erregeak Erroma sortu zueneko urteurrenean eskaintzen ziren.

Burua, berriz, behar bezala apainduta, herritar xumeen bi talderen artera jaurtitzen zen, bata Subura auzokoa, eta bestea Via Sacra auzokoa, eta haiek oso gogor le-hiatzen ziren buruaren jabetzagatik. Suburakoek irabaz-ten bazuten, burua Mamilia Dorrean iltzatzen zen; Via Sacrakoek irabazten bazuten, burua Regiaren kanpoko horman iltzatzen zen.



Ilunabarra Baganen

Erritual hartan, hain zaharra izanik inork ez zuen haren jatorria gogoratzen, Erromako onena Erregiako botere bikiei (gerrari eta lurrari) sakrifikatzen zitzairen. Haiei zor zien hiriak bere indarra, oparotasuna eta betiko aintza.

26


Urriko Zaldiaren heriotza iraganaren dolua eta etorkizunaren ikuspegia zen aldi berean. Iturria: El Caballo del Cesar. Colleen Maccullough.

Beste tailer bat bisitatu genuen, gai desberdin eta interesgarri batekin: banbu gaineko lakatua. Bitxia da nola egiten den eskuz eta zer emaitza lortzen den. Jakina, saltzen zutena industrialara ote zen ziur jakiterik ez zegoenez, lehenik turista “berotzen” zuten eta gero “urrezko prezioan” ontziak jartzen zizkieten eskura.

Ilunabarra ikustera joan ginen tenplu txiki baten gainaldera, eta bertara iritsi ginen lehenengook sartu ahal izan ginen, bai, baina geroago iritsi zirenek beste leku batzuk bilatu behar izan zituzten. Okupa zitezkeen bi terrazetako lehenengoaren lehen lerroa Isabel eta Javik bete zuten. Hala ere, geroago iritsi zen andre batek, haien atzean lurrean eseri ostean, oinak lehen ilarakoen artean jarri eta bultzakabultzaka sartzen joateko trebetasuna izan zuen, lekurik onena lortu arte. Bego eta biok bigarren ilaran egon ginen bizkarra horma baten kontra jarrita.

Afaltzeko ordua iritsi zen. Lehenago, turistentzat zen eta txotxongilo-ikuskizuna zuen jatetxe batera joan ginen: San Yuren erantzuna izan zen aurreko egunean egin genion eskaerari. Leku on bat bilatzen saiatu zen, baina ez zuen lokalarekin harremanetan jartzerik lortu, eta iritsi ginenean ez zegoen mahairik libre eszenatokiaren ikuspegi onarekin, eta, beraz, haren aholkuei jarraiki, hurrengo egunerako utzi genuen.

Hori ikusita, aurreko gauean afaldu genuen jatetxera itzuli ginen. Bidean ginela, San Yuk beste gidari baten deia jaso zuen; antzokiaren inguruan zegoen turista-talde batekin, eta nire liburu-irakurgailu digitala zeukan hark. Haren bila joan ginen. Egoera ezin hobean jaso nuen, plastiko garde- nezko paperean bilduta.



Segundo C. Escolar

Bere lana eta Algortarekiko harremana

2. zatia



por Javier Campo | Argitaratuta 1 martxoa, 2024

27

Artistari diodan miresmena paper batean islatuta utzi ondoren, haren obrari erreparatuko diogu orain, haren munduan murgilduko gara, eta haren mundua bi puntu kardinaletara zuzenduta egon da etengabe, arte plastikoetara eta familiara, bere familiara. Ez dago garatu ez duen arte plastikorik, ez dago probatu ez duen teknikarik, Erdi Aroan izandakoak barne, bere eskuetatik sortzen den guztia benetako artea da, bere margolanen sinadura barne. Izan ere, nor da Segundo Calixto Escolar? Zein da haren jatorria, haren arbaso artistak? Nondik datorkio bere bereizgarri duen artista globalaren genea? Haren mundu sortzaile eta pertsonalean sartzen saiatuko gara, traba egin barik, artistei ez baitzaie gustatzen inork gogaitarazterik. Oso gustura bizi da bere barnerakoitasun, lan isil eta eremutar munduan.

Segundo Calixto Escolar Díez, bere aurreko guztiek izandako izen berberak, jada desagertuta dagoen Salamancako auzo batean munduratu zen 1944ko urriaren 28an, Falangeak eta JON-Sek zorrotz gainbegiraturako gerraoste betean. Hiru senideetan zaharrena izan zen, eta bere bizitzako lehen urteak oso gogorak izan ziren, baina artean ez zen horretaz jabetzen.

Aita, erregimenaren disidentetzat, «gorri»tzat joa, kartzelan zegoen, eta, hortaz, berak ume-umetatik ezkutatzen ikasi behar izan zuen, eta ahalik eta oharkabeenean pasatzen, nagusi zen erregimenarengandik zigor handiagoa jaso zezakeelako. Are gehiago, «Escolar» abizena utzi eta aitaren bigarrena zen «Frutos» abizena hartu behar izan zuen, seinlatu ez zezaten, eta amak eta izekok erretorearekin eztabaida sutuak izan zituzten, «gorri» baten semea behar bezala bataiatzeko.



Segundo C. Escolar en brazos de su madre

Salamancako hainbat ikastetxetan, «piper» eta «eskola-ihesiak» eginez ibiltzeak ezin zuen ezkutatuta derrotak seinalatutako haurren gainean agintariek ezartzen zituzten desberdintasunak. Nahiago zuen haur-pikareska erabiltzea umetatik, kafetegietako solasaldietan sartzeko, katedralean *cicerone* moduan aritzeko, aitagure bat errezatzea trukean olata-zati bat lortzeko, bere irudimenak iradokitzen zion guztia. Irudimen hori areagotu egiten zion egunez egun «irispidean» -hau da, edozein motatako materiala menderatzen ikaste aldera inguruan zituen lanbide guztien sekretuak sumatzen joateko irrikaz beteriko begien aurrean- jartzen zitzaion edozein lanbide edo jarduera ezagutzeko kezka.

Kontserbatzen den bere marrazkirik zaharrena, zortzi urterekin egin zuen, eta lepo estilizatua duen murko moduko botila handi baten apuntea da, eta bertan ikus daiteke bolumenak eta perspektiba menderatzen hasita dagoela. Bitartean, bere eguneroko bilakaeran, aitarren bozelketa-tailerra konstante bat zen, baina beti marrazketa izanik bere bizitzan ukitu zituen arlo guztien sorrera. Aitarren lanbidean laguntzaile gisa izan zuen goiztiartasuna bere hainbat lan propiotan islatu zen, batez ere ikonografia erlijiosoaren barruan, «*suntsitu gabe sortzea*» ahalbidetuko zioten materialak menderatzeko ahaleginean.

Gerraosteko garaien zeinuak —gerra amaitu eta 12 urte geroago oraindik ere garaituekiko, arma-indarrez ezarritako Erregimenak bezala pentsatzen ez zutenekiko, jazarpenak krudela izaten jarraitzen zuen— behartu zuen “Escolar” familia Salamancako jaio-terria utzi eta aire arnasgarriagoa izango zuen leku bat bilatzera, kide guztientzat bizitza hobea lortu ahal izateko. Eta gurasoek uste izan zuten tokirik onena Bilbo zela, non industria baitzen ekonomia mugitzen zuen motorra, eta horrek eragin ona zuen Arteen loratzeari.

Bilbo artista ezagun eta aitortuen -Basterretxea, Ibarrola, Chillida, Oteiza eta abarren- sorterrria eta altzoa zen. Eta Segundoren aitak, irizpide onarekin, erabaki zuen leku ezin hobea zela ekonomikoki eta artistikoki hobetu eta igotzeko. Segundo Calixto -bere ume-arimari hasieran asko kostatu zitzaion Salamancakoaren oso bestelako idiosinkrasiara egokitzea- pixkanaka burua eta eskuak sartzen hasi zen arte desberdinei buruz egiten ziren lehiaketa ugarietan.

Laster iritsi zen lehenengoa, eta, gainera, Getxo lokartu samar batekin harremanetan jarri zen lehen aldia izan zen. 1958an hondarretako Haur Eskulturaren **Lehiaketa Nazionala** sortu zen, gaztelu baten modelatze tipikoa gaitzat hartuta. Ekitaldirako esleitutako hondartzetako bat Ereaga izan zen, eta hor etorri zen bere tramankuluak hartuta Segundo mutikoa, data hartan, 1959ko uztailaren 15ean, 14 urte zituena, beste berrogeita hamar bat umerekin batera, lehen saria irabazteko asmoz. Lortzen zuena azken fasera pasako zen, eta hori Parisen izango zen, Espainia ordezkatzuz.

Epaimahaikideen izenek -tartean zeuden, besteak beste, **Eduardo Chillida, Julio Caro Baroja** edo **Llano Gorostiza** ezagunak-lehiaketari eman zitzaion garrantzia adierazten dute. Ez zitzaion tokirik aproposena egokitu Segundori eta, beraz, bere asmamenaz baliatu behar izan zuen hondarra aglutinatze-ko, itsasgora ez baitzen bere ur gaziarekin haraino iritsi. «Coca-Cola» bat erabili zuen hondarra trinkotzeko, eta, kasualitatez, berekin zeramatzan molde batzuk, adibidez pospolo-kaxa bat, erabili zituen almena perfektuak lortzeko. Ereagan Lehen Saria lortu ostean, Lehiaketa Nazionalera aurkeztu zen, non txapel-dunorde izan baitzen, Parisera bidaiatzeko eskubidea irabaziz. Han, bere aldekoa ez zen egoeran, seigarren postuan geratu zen, baina garrantzitsuena hartu zuen eskarmentua izan zen eta gozatu zituen erosotasunak, berriak eta ezohikoak berarentzat.


Nerabezaroan denboraldi batez Madrilén bizi izan zen, eta erregimen frankistak, aitarren iragan errepublikanoagatik baka-rrik, matrikula ukatu zion Arte Ederren Akademian. Hori ez zen oztopo izan Publizitate Agentzietan, Arte Grafikoetan, zinema-ko kartelak diseinatzen eta erakusleiho-apaintzaile gisa lanean hasteko. Edozein sormen-lan ona zen berarentzat, alde bate-rik bizimodua ateratzeko eta, bestetik, bere sormen-dohainak sendotzeko, eta horrela, hiriburuan egon zen bitartean, merka-ritza-lokalen, bulegoen, kafetegien... barnealdean eta altzari-ementuen diseinua landu zuen.

Gazte-gaztetatik, Segundoren izaera langilea nabarmendu zen, prestakuntza akademiko espezifikorik ez zuen gizona, baina



bere geneetan marrazketa menderatzea eta lanerako joera agor-
teztina zituena.

Adin-nagusitasunarekin, Bilbon finkatu zen. Lehenik, sarrailagint-
za artistikoko tailer batean lan egin zuen, eta, ondoren, bere



Autorretratua 1966

tailerra muntatu zuen: 21 langile izateraino iritsi zen, eta zintzo ordaintzen zien haiei, enkarguak alde zurretik kobratuta izan edo ez. Abentura hura soldadutza egiteko deitu ziotenean amaitu zen.

Burdina izango zen 19 eta 27 urte bitartean erabiliko zuen elementu eta lehengai nagusia, orduan Bizkaia meatzaritzan eta burdingintzan eskualde nagusia zela aprobetxatuz, eta garai hartan egin zituen bere eskultura asko, abstraktuak nahiz figuratiboak. Haietako bat, goletaren haize-oihal handi bat, Bilboko Plaza Barrian jarri zen. Baina Segundo Escolarren arte-gaitasuna ezin zen jakintza-alor bakarrera mugatu; aitzitik, errementaritza artistikoko lan, bozelketa, eskultura, pintura, zeramika eta taillarekin hedatzen zen kanpoaldeetan, eta sareta, tximinia, burdin sare eta eskailerekin barrualdeetan.

Aldi berean, obra artistikoak erakartzea helburu zuten hainbat lehiaketatar aurkeztu zen, eta 1975ean Banco Españak 15 metroko altuerako beirate handi bat egiteko deitutakoa irabazi zuen. Horretan aritu zen Félix Cañada maisu beirategilearekin batera, gero Algortako «Kristo Eroslea» parrokiako beirateak egin zituen berberarekin, hain zuzen. Urte berekoa da garai hartan eliza eratzen ari ziren Ispizua eta Aristegui arkitektoekiko adiskidetasuna, eta haiekin erabaki zuen bere parte-hartzea Bilboko Bankunionen egoitza nagusiaren diseinu-proiektuan, Plaza Biribilaren, Buenos Aires kalearen eta Ledesma musikariaren kalearen elkargunean zegoelarik. Sei arkitektura-estudio aurkeztu ziren, eta hau bigarren tokian geratu zen; kronikek diotenez, irabazi ez bazuen, «kanpoko eragile» engatik izan zen, eta ez balio profesional hutsengatik.


Bere pintura-lanaren bakarkako lehen erakusketa **Ercilla hotel-ko** galerian egin zuen. Kazetari baten galderei erantzunez, esan zuen une horretan «*errespetua eta ikusmina*» sentitzen zituela kritikaren eta publikoaren aurrean, ordura arte lagunei bakarrik erakutsi baitzizkien bere margolanak. Haren pintura figuratiboak moldeak apurtzen zituen, begiak bezalako ezaugarri fisionomiko batzuk ezabatzen baitzituen, horrela, ohiko bideetatik irtenez. Pintura serioaren eremu tradizionalera itzultzea zen, baina nortasun eta independentzia gehiagorekin.

Escolarrengan, bere artea, lehen esan dugun bezala, ez da pinturan geratzen. 1975eko abenduaren 6an «**La Gaceta del Norte**»n sinadura barik argitaratutako artikulu batean, eta «Windsor galeria» ospetsuan egin zuen erakusketa zela-eta, honako hau esan zuen: «*Uste dut nirea eskultura dela, eta betebetean dihardut horretan, horri lotuago sentitzen bainaiz nire arbasoengatik eta, gehienbat, horri esker bizi naizelako. Horrengatik jarduten dut gehiago horretan*».

Urte pare bat geroago, **La Gran Enciclopedia Vasca** argitaratutako «*Biblioteca: Pintores y Escultores Vascos de Ayer, Hoy y Mañana*» 160. zenbakian (kontu bitxia hau askorentzat, artista Salamancakoa baita, eta ez euskalduna), Luis de Castresanak irmotasunez adierazten du: «*Gure garaiko —1977ko urtarila— arte plastikoen panoraman, nik ez dut inor ezagutzen Segundo Escolar bezain artista osorik, erabatekorik*». Erakusketaren sinopsi murriztu bat besterik ez da, Segundo artista polifazetiko bihurtzen duten aurpegi eta alderdi plastiko guztiei buruzkoa, eta ziurtatzen du: «*Adierazpen artistiko oro interesatzen zaio, dena menderatzen du, dena ikertzen du, dena maite du. Guztiak baliu dio arte bihur daitekeen material gisa*».

1971n, eta Algortan Aita Hirukoiztarren eliza berri bat eraikitze-ko proiektua hastearekin batera, Segundo Escolar eta arkitektoen arteko harremana hasi zen, borondate guztiak batuko dituen proiektu bat aurkezten saiatuz. Escolarrek 28 urte zituen eta gauza handi batean parte hartzeko gogo itzela zuen. Hemen zuen aukera, eta ez zuen alferrik galdu. Ispizua eta Aristegui arkitektoen eta Félix Cañada beirateen egilearen laguntzarekin, aldare

nagusirako zurezko eskultura-lan handi batean ardaztu zen. Lan haren izenburua «Heriotza eta berpiztea» izan zen, sormenaren eta eskultura-teknikaren uztarketa, bai eta presbiteriorako zere- monia-aulkiak, zeramikaz eginak, eta parrokiako kriptan ikusgai dagoen gurutziltzatu bat ere. Halaber, 'Ama Birjina Haurrarekin' eta 'apostoluak Jaunarekin' irudi bihurtzeko eskatu zitzaion fatxadarako. Lan horiek ilusioz eta ahalegin handiz prestatu zituen, baina ez zuten lortu hirukoiztarren komunitatearen eta eliztarren oniritzirik, arteak jada ezarrita zituen kanonei atxiki baitzitzaizkien haiek, eta ez Escolarren bide apurtzaileei, eta, beraz, itzuli egin zizkioten.



Denbora batez «El Redentor / Kristo Eroslea» parrokiaren fatxadan erakusgai egon zen Kristoa eta zirriborrea

Joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan beste lan asko egin zituen, hala nola, **Antonio de Lerchundi** jaunaren, «**Gráficas Lerchundi**» sortu zuenaren, brontzezko bustoa, **Bizkaiko Adingabeen Tutoretza Epaitegirako** eskultura edo «**Obrero**» izeneko beste eskultura bat, «**Refractarios de Vizcaya**» enpresak enkargatua. Gero bere bizitzan beste etapa bat prestatu zuen Belen emaztearekin eta bere bi alabekin, Olga eta Lydiarekin, Burgosko Belorado udalerrian leku bakarti eta isil batean babestuz; hangoa da Belen, bere emaztea.



Santa Kasilda brontzezkoa

Bere jarduera frenetikoa da han, inork ez du molestatzeko, modu nekaezinean lan egiten du bere dorrean, eta bere lanarekin beste behin erakusten du diseinuaren bidez espazioak eta dekorazio-elementuak sortzeko duen gaitasuna, eskulturaren artean duen maisutasunarekin uztartuta. Ez ditugu hemen azalduko laurogeiko hamarkadan eta hurrengoetan egindako lan guztiak, neurri handi batean landa-lanek eta bertako jendeak inspiratuta, eta obra bakarra nabarmenduko dut, dagokidan hurbiltasun familiarragatik: Santa Kasildaren brontzezko eskultura da, Briescako Udalaren enkarguz egina, artistak garuneko bi infartu gainditu eta hilabete gutxira.

Mario Ángel Marrodán poeta eta saiakeragile emankorrek honako iruzkin hau utzi zigun Segundo C. Escolarren eskulturari buruz: *“...sen basati dotorekoa da, trebetasun miresgarrikoa, forma argi eta efektistakoa, gorpuzkera txukunekoa. Escolar gaian ezin bikainago gisa agertzen da, ahaztutako praktika zaharren xehetasun, teknika eta tratamendu guztiak ezagutzen dituen, aktiboa tresnetan, objektuetan, elementuetan eta espazio-ikuskeraren kontzeptuzko analisisan.* Han jarraitzen du lanean ia laurogei urte dituela, bere garaiko eta inguruabarretako gizon honek, bere ingurunearekin konprometituta.



Atapuercako historiaurreko gizakia: «Familia antecessor»

Baina ez dadila geratu haren denbora pinturak eta eskulturak bakarrik bete zuten ustea. Izan ere, Escolarrek ez ditu mihisea eta harria bakarrik erabili, baita zura eta metala, buztina eta ezkoa, alabastroa, marmola edo intxaurrondoa ere, harikortasuna, malgutasuna edo berehalakotasuna ezaugarri nagusitzat duen oro, bere obra osoa gizakiaren —gizon edo emakumearen— inguruan biraraziz, ia beti modu indibidualizatuan. Bere obraren zati txiki bat bakarrik ikusi ondoren, ondoriozta dezaket erabilitako teknika eta materialen gainean duen nagusitasunak «*suntsitu gabe sortzea*» ahalbidetzen diola. Bozelketaren, eta horren barruan, dominagintzaren arte-eremuan ere eskuak sartu zituen, brontzea, kobrea, beruna, zilarra eta urrea, letoia, alpaka eta zinka erabiliz. Era berean, eta material horiek beroriek erabiliz, urregintzaren munduan sartu zen kaliza eginez Mirafloresko kartusiarako edo makuluak abadesa zistertar batentzat edo Silosko abadearentzat, leku horretan bere arte erlijiosoaren hainbat erakusgarri utzi dituelarik.

Jada mende berrian sartzen ari gara. Bere jarduera frenetikoa da, bere betetasun fisiko eta artistikoan dago eta artearen beste teknika batzuetan murgiltzen jarraitzen du, horietako batzuk bere genetikari dagozkionak, bere aurrekoek Erdi Arotik eta Errena-

zimentutik utzi dizkietenak, bete-betean Arte Plastikoei eskainitako saga bat izaki. Eta berak ez dio horietako bakar bati uko egiten. Kanpaiak urtzen dituen maisu baten ondorengoa bada, Silosko monasteriorako kanpaiak diseinatzeko ditu berak; arbaso batek errementaritza eta sarrailagintza artistikoa landu bazituen, berak San Pedro de Cardeña monasterioan San Sisebutoren gorpuzkiak dauden kutxa egingo du; bere aita bozelketan artista ezaguna izan bazen, bera benetako maisu bihurtu da jakintza-alor horretan. Horri bere pintura-lana, zuzendaritza grafikoa, diseinua, barnealdean arkitektura, xilografiak, heliograbatuak, dokumentalak, esmalteak eta seguru asko ahazten zaigun beste arloren bat gehitzen badiogu, Segundo Escolar artista polifazetikoa dela baieztatuko dugu zalantza barik, are gehiago, artista erabatekoa.



Silosko monasterioan dagoen eskultura

Horren guztiaren sorreran pintura dago eta bere oinarria marrazkia da. Ehunka obra, olio, akuarela, koloretako arkatx, paisaia, natura hil, mitologia eta, horien guztien gainean, gizakia, bere esparru propioan erretratatu. Euskal Herrian bizi izan zenean, itsasgizonak eta jende herrikoiak, eta jada Burgosen, goldearen eta laboreen landa-mundua, bere nortasunaren adierazpenak dira, eta horietan XII. mendetik XV. mendera bitarteko teknikak erabiltzen ditu.

Bilbon egin zuen lehen pintura-erakusketa 1974an izan zen, **Euskal aretoan**. Erakusketa hartan bere egoera emozionalean bisitarien iritziarekiko kezka zegoen, baina baretasuna ere bai, ziur baitzegoen oso ondo pentsatuta zeukala pinturaren plaza-ira irten aurretik. Hurrengo urtean, **Windsor aretoan** egin zuen erakusketa argi eta garbi islatzen zen euskal izaeraren eragina: arrantza-portuetako gaiak eta txokoak, landa-eremuetako paisaiak eta euskal irudiak zeuden, errealtatea modu oso pertsonaletan ikusteko zeukan era nabarmen zelarik haietan.



Sardina-saltzailea

Ezin dugu ahaztu giza irudiarekiko zuen zaletasuna, bere alaben eta emazte Belenen erretratuak, bere autorretratuak edo Joan XXIII.a aita santuarena nabarmenduz, guztietan itxura lasaia eta barne-indarra azpimarratuz. Emakumea lehen planoan dago, eta bere marrazki eta margolanetan haren lan isila baina funtsezkoa geratzen da islatuta, batez ere emakumea ama-jarreran nabarmentzen da, amatasunaren figura, bere amari omen gisa.

“Xeheak” deituriko beste arte-adierazpen batzuetatik behatz-puntetan igaroko gara saioa gehiegi ez luzatzeko, baina ez dira horregatik garrantzi gutxiagokoak, Segundo Escolar marrazketan, pinturan edo eskulturan bezain indartsu sartu baitzen horietan: buztina, zeramika izan zen bere inspirazioaren beste iturrietako bat haurtzarotik bertatik, bere aurrekoen tailerrean elikatua; modelaketa, buztina irudi bihurtzeko; buztzingintza, Gaztelako pegarrak eta murkoak, guztiak berak modelatuak eta aurpegi biritzez margotuak formatu zirkularretan; inprimaketa, serigrafia eta faksimileak, hala nola **Mio Ciden eresia edo Silosko monasterioaren** historiari eskainitako lan literario baten azalerako berak sortutako logotipoa, Escolarren aztarna oso ikusgarria delarik monasterio hartan; bozelketa numismatikara eta dominagintzara iristeko.

Baina Escolarrek beste iturri batetik ere edan zuen, zurrutada batzuk besterik ez baziren ere. Arte horretarako ez da klik bat bakarrik behar, unea jakin behar da, argi egokia bilatu behar da,

ondoan egokitzen den laukiratze edo enkoadraketa, landa-eszena bere ingurune naturalean, gaur egun jada desagertuan, atzematea, eta adin jakin bat dugunoi eta hori bizi izan dugunoi nostalgia sorrarazten eta haren galera deitorarazten digu. Argazkigintzaz ari gara, jakina, batez ere bi unetan inspirazio-iturri izan zena, Bizkaian arretaz ezkutatzeko zena —ikusteko ez baitzen atsegina—erretratatzeko, eta jada Burgosen, Gaztelako nekazaritza-eszenak, teknologiaren ondorioz galdutako paradisua.

Beti bizikide zuten aberearen aurrean edo ondoan zeuden (abereak beroa ematen baitzien neguko gau hotzetan) gizakien eguneroko zeregina jaso zuten haren kamerak eta teleobjektiboak erakusketa antologiko batean. Gizakiaren, aberearen eta landaren panoramika bat, haientzat bizirauteko bitartekoak ziren.

Lehenago, bere euskal garaian, leku bat aurkitua zuen, non agintariak pertsonak gizartetik baztertzeko zituzten, jada pertsona ez balira bezala, ikusteko eta ondoan edukitzeko deserosoak zirelako. Escolarrek errealtatea bilatzen du, ez da itzulinguruka ibiltzen eta inork nahi ez duenari aurre egiten dio. Bermeoko psikiatrikoa ezagutu zuen, 1975. urteaz ari gara, non pertsona batzuk, izen-abizenak dituztenak, familia batekoak eta giza-diaren parte direnak, bananduta bizi diren, urrunduta, beren buruarekin bakarrik eta egoera berean dauden beste batzuekin bakarrik. Eta berak bilatu egiten ditu, estimatu egiten ditu, bere kameraz mimatu egiten ditu, haien unerik intimoenak birstortzen ditu gogaitu barik, bere erretratatzeko makinaren obturadorearekin laztanduz bakarrik, bere negatiboetan, bakardadearen erdian, giza berotasuna eta adiskidetasuna, agerian utziz.

Bere argazkietan adierazten duten patetismoaren aztarna bat utzi zuen, zirraragarriak baitira, beren egitasunagatik hunkituta uzten zaituzte, erraiak mugiarazten dizkizutelako eta, gutxienez, gizaki gisa deuseztatutako gizaki horien errealtatera hurbiltzeko balio dutelako.

Hemen uzten dugu Escolar artista, bizitza osoa bere artearen bidez espresatzen edo bere burua adierazten eman duena, arte ezagun guztietan. Gaur egun, jada zahartzaroan sarturik, lanean jarraitu arren bere indarrak apur bat urrituta, bere etxea eta bizitza energiaz eta introspektzioz bete duen guztiaz libratu nahi izateko egoera horretan dago. Bere artea estimatuko duten pertsonak bilatzen ditu etsi-etsian, eta jada diru-kontuak ez dira berarentzat interesgarri. Bere obrak errespetatuak eta, agian, miretsiak diren lekuren batean erakusten jarraitzea besterik ez du nahi, bere izpirituak, indarrak eta handitasunak lan horietan jarraituko duelako bizitzeko.



Bermeoko Psikiatrikoan egindako argazkien erakusketaren lagina



por Jorge Ibor | Argitaratuta 18 apirila, 2024

Eguna nobedade batekin hasi genuen: zorua bustita eta zerua lainotuta argitu zuen. Pixka bat freskatu ere egin zuen.

Gosari ederra egin genuen, hotelaren kategoriaren arabera, eta lasai-lasai abiatu ginen ontziralekuraino, lorategi landuetan barrena paseo txiki bat emanez, horretarako astia genuen eta. Ontziralekura ordua baino lehen iritsi ginen arren, nola ez, San Yu gure zain zegoen han.

Ohitura ez galtzeko, lehenik tokiko merkatu batera joan ginen, laku edo aintziran sartu gintuen Nyaung Shwe hirikora.

Pantalanera iritsi baino lehen, kanoak hurbildu zitzaizkigun saltzaileekin, beren salgaiak eskainiz. Duela gutxi arte, ur gaineko azoka hura ospetsua zen, baina orain lehorrean egiten da, batez ere.

Jaitsi ginen eta, ohikoa zen bezala, lehenik tea eta txurroak, hainbeste gustatzen zitzaizkigun 'porrak', hartu genituen. Barrutiko taberna txikira iristeko, turistentzako produktuak saltzen dituzten postu asko zeharkatu genituen, asko Txinan eginak eta kalitate txarrekoak.

Bidean, lehen aldiz zelanbaiteko oholza altu samar bat ikusi genuen, eta gainean Karen emakume batzuk. Erakargarri bat ziren turistentzat, diru-kopuru bat kobratzen baitzuten argazki bat egiteagatik, ez dut gogoratzen zenbat. Haien itxura eta begirada tristeagatik, nabari zen beren inguruetik kanpo zeudela, argi eta garbi esplotatuak.

Oraingoan, merkatua nahiko berria zen, alde batean elikagaiak saltzen ziren, eta beste batean ehun-gaiak eta opariak, dena oso ondo antolatuta. Gidaria txurroen lekuan zain geratu zen, Bego eta Isabel alde batetik joan ziren eta Javi eta biok bestetik. Handik pixka batera elkartu ginen berriro. Eskaintzen zuten produktu-aukera oso zabala izan arren, naturaletik gutxien zuen azoka izan zen, gutxien gustatu zitzaidana. Turistentzat zen saltokien ehune-

ko handi bat eta turista asko egoteak gure inguruko azoka txikien antzeko bihurtzen zuen.



Bost buden egungo itxura (David Stanley, de flickr.com; CC BY 2.0)

Zalantza barik, horregatik, esparruaren barruan, dendaz inguratutako eraikinez gain, zenbait kutxazain eta banku-bulego bat zeuden.

Kanoara itzuli ginenean, Phaung Daw Oo pagodara, Inle aintzirako eta Shan lurralde osoko sakratuenera, abiatu ginen.



Phayng DawOo pagodarako sarbidea



Aldare ugarietako bat

Zentro erlijioso hau XVIII. mendean eraiki zen, nahiz eta Budaren irudi batzuk XII. mendeoak diren. Zehazki, bost eskultura txiki, jatorriz giza itxura zutenak, baina erromesek etengabe urre-xaflaz estaltzen dituztenez, erabat itxuragabetuta daude, eta gehiago dirudite gaizki egindako pilotak.

Beti bezala, oinutsik ibili behar genuen esparru osoan. Zorionez, San Yuk berriro xukadera hezeak eman zizkigun irteeran, oinak garbitzeko.

Han ere emakumeek ezin zuten urrearen eskaintza egin betiko arrazoiagatik, lizun edo lohiak izateagatik.

Polita eta interesgarria da tenplu honetako budak lakuan zehar mugitu zireneko elezaharra, eta bitxia izan behar du horietako 4 uretan zehar prozesioan zelan eroaten dituzten ikustea, montzoiak amaitzen direnean, urri aldera.

Phaung Daw Oo pagodaren jaialdia, birmanieraz Thadingyut ilargi-hilabetea deiturikoan, ilgoraren lehen egunaren eta ilbeheraren hirugarren egunaren artean ospatzen da, gutxi gorabehera urrian.

Itxuragabetutako bost buda txikietatik lau 18 egunetz lakuko herrietan barrena garraiatzen dituzte, fededunek gurtu ditzaten.

Txori mitiko baten itxurako txalupan garraiatzen dituzte, galaz jantzitako arrantzaleek gidatuta, eta danbor handi baten soinuan egiten dute arraunean hanka batez. Txalupa hori beste ontzi batzuek inguratzen dute, eta horietan lakuko bizilagunak joaten dira, txalupa nagusiko marinelek borroka-artearen erakustaldiak egiten dituzten bitartean.

Txalupa sakratuan ez dauden arrantzaleen artean ere lasterketak egiten dira, eta arraunean egiteko modu tipikoarekin beren herriaren ohorearen alde egiten dute.

Gu ez ginenez bertan egon adierazitako data horietan, ez dugu ekitaldi horren argazkirik. Baina bai budetatik hurbil nagoeneko bat, haiei, jakina, zegozkien urre-xaflak erantsi genizkielarik lehentxeago, haien irudia are gehiago itxuragabetuz.

Aintzirara itzulita, oso ibilbide interesgarria egin genuen uraren gaineko etxebizitzaren inguruan eta ur gaineko lorategi eta baratzeetan barrena. Bitxia da aintziraren hondotik ateratako hiazinto ihartuen hondarrak geruzaka metatzeko sistema, emaitza banbu-kanaberez inguratuz irrista ez daitezen, ondoren gainean lur pixka bat jarri eta gainean ereiteko. Garai hartan tomate-landare dezente ikusi genituen.

Etxeetan jendea bizi zen, baina ez zegoen jende askorik, antza denez, hilabete haietan mendietara joaten baitziren dirua irabaztera (bitxia, Mandalay-n alderantziz).

Ilbilaldi eder harekin jarraituz, egurrezko hesolen gainean eraikitako beste eraikin batera, askoz handiagora, iritsi ginen: Nga Phe Kyaung monasterioa, 'katu saltarien monasterio' gisa ere ezaguna.

Duela gutxi arte, bertan bizi ziren monjeek katuak hezi edo bezatzen zituzten, eta akrobazia errazak eginarazten zizkieten sari bat, galleta edo antzeko gozokiren bat, irabazte aldera.



Budaren irudi itxuragabetuak atzean



Tomate-landareak

Horrek Alemaniako turista batzuen sentiberatasuna mindu zuen, nazioartean salatu zuten jarduera, eta "animaliak ustiatzeko" jarduera hori gelditzea lortu zuten.

Jakina, inork ez zuen ezer egin jirafa emakumeen, feriako material gisa lakuko azokan ikusgai zeudenen, alde. Hori desberdina da.

Orain katu bakan batzuk ikusten dira, goseti eta beren kasa utziak, tenpluan zehar.

Baina goazen edukira. Dirudienez, eraikin erlijiosoaren barruan, lakuko aberatsek, ezkontzen zirenean, aldare bat eraikitzen zuten Budaren omenez, haietako asko benetan ikusgarriak.

Aldareak egiteko gero eta langile eta material gehiago behar zenez, prezioak igo egin ziren, eta, gaur egun, ohikoena da ezkongaien monjeei dohaintzak ematea, Budari eska diezaioten ezkontza babesteko.

Lehen egunean kanoa hartu genuen laku-ertzeko herri hartara bertara joan ginen bazkaltzera, Nyaung Whwe-ra, motxiladunek gehien erabiltzen duten hirira, handik ibiltzen baitira joan-etorrian inguruak ezagutzeko.

Isabelek bete gabeko mandatu bat zeukan eta San Yuk bazekien: *tagliatelleak* erostea. Eta herriko merkataritza-kalean zegoen azoka zaharra (oso polita) leku egokia omen zen horretarako. Bego saiatu zen txankletak (birmaniarrek hain erabiliak) erosten Izaskunentzat, baina ez zuen zenbaki egokirik aurkitu. Ondorioztatu genuen birmaniar emakumeek oso oin txikiak dituztela, beraien garaierarekin bat datorrena.

34



Jengibre pisatzeko balantza zarpaila

Buda eta nat-en estatua txiki ugari ere ikusi genituen salgai. Zerbait ezohikoa ordura arte.

Bitxia izan zen San Yuk erositako jengibrearen zelan pisatu zituzten ikustea. Sistema ezin zitekeen zarpailagoa eta eskuzkoagoa izan.

Bazkaltzeko, jabe beraren jatetxe batera joan ginen, eta aurreko egunean lakuan zegoen jatetxeko karta berarekin. Ibaiko arraina eskatu nuen arranparrillan. Ez nuen ezagutzen eta ez dakit baliokidetasunik dagoen hemengoren batekin. Gertatzen den bezala, lar egina zegoen. Lehorra.

Kanoan gutxi gorabehera ordubeteko beste paseo erosoa batekin hotelera itzuli ginen. Esan dut zoragarria zela, baina, edozein herritatik urrun zegoenez, aspergarria.

Gure gidariak berariaz eskatutako menu bat afaldu genuen. Oso ondo.



Hiazinto ugarirekin topo egin genuen



Bista kanoatik

18 de abril, 2024 | por Jorge Ibor

Gosaldu ostean, beste kanoa batean sartu ginen, laku edo aintziraren hegoaldeko PhoKhom hirira joateko, 3 ordu inguruko nabigazioa. Han Van furgoneta bat genuen zain gu Loikawra eroateko. Bidean geldialdi interesgarriak egingo genituen.

Gogoratu behar da lakua oso luzea eta estu samarra denez, distantzia handia dagoela iparraldetik hegoaldera (edo alderantziz), eta horrek eragin zuela hainbeste ordu behar izatea gure helmugara iristeko, orduan geunden lekutik kontrako aldean, beste muturrean baitzegoen.

Gainera, uretako hiazintoez ibilbidearen zati handi bat estaltzen zuten eta, batzuetan, hainbeste zirenez, bidea ixten zuten. Behin, irteerarik gabeko bide bat hartu zuen pilotuak, eta buelta eman behar izan zuen. Ondorioz, maniobra asko egin behar izan zituen, nabigazio-kanala oso itxia zelako. Ibilbidearen zati bat atzera-martxan egin genuen, eta zabalkuntza egokia aurkitzeko gure laguntza herabea izan zuen: landareak eskuekin baztertzen saiatu ginen.

Jakingura pizteko, programatu gabeko geldialdi bat egin genuen 100 biztanle baino gutxiagoko herrixka txiki batean, ez dut haren izena gogoratzen. Komenigarria zen bidaia astunegia izan ez zedin, eta, bide batez, beste bizimodu batzuk ezagutzen lagunduko zigun.



Herrian zehar

Gainera, egun hartan ez genuen azokarik izan.

Buztingintzako lantegi xume bat bisitatu genuen, bertan andre bat ari zen gogor lanean. Bi irudi txiki erosi eta herrian zehar ibili ginen. Noski, asfaltorik eta horrelakorik ez zegoen han.

Hemen txerri bat, han oilo batzuk, ume batzuk jolasean, etab.

Hiru alanbik zituen etxe batera sartu ginen, non arroz-pattarra egiten ari ziren familia eta hurbilekoentzat, eta, beraz, ez zuten salgai. Oraindik goiz izan arren, Javik eta biok dastatu egin genuen. Galiziako uxualaren antzekoa, suabeagoa.

Berriro ekin genion bidaiari, estupaz betetako leku eder batera iritsi arte: Takhaung Mwetaw pagoda.

2.000 inguru ditu, batez ere XVI. eta XVIII. mendeen artean eraikiak edo eraberrituak. Guztiak ezberdinak dira, askotariko altuerak dituzte eta bikain apainduta daude. Bere alde gorenean txilin asko dituzte.

Uste dut bisitari bakarrak ginela.

Han, besteak beste, Budaren eskultura bat ikusi genuen, etzanda eta bere apostoluez inguratuta, aurreko guztiak ez bezalakoa.

Aitortu beharra dago tokiak, hango estupa anitzek, haizeaz txilinek egiten zuten soinu leunak eta turista gutxi egoteak oso-oso atsegin bihurtu zutela han igarotako denbora.

Hala ere, ia ez da aurkitzen leku eder haren erreferentziarik Interneten.

Bisita politaren eta zegokion argazki-saioaren ostean, Samkar edo Sagar inguruko herrixkara joan ginen. Bertan, bikain zaindutako ortu edo baratzeak, eskola bat, bi neska gazte adobe edo gangatilak egiten ikusi genituen (esan zigutenaren arabera, irabazten zutena kalkulatu genuen: urte osoan eguzkitik eguzkira erritmo onean lan eginez, opor

eta asteroko atsedeen barik, 700 eta 800 euro artean atera zitzaketen) eta emakume bat gozokiak, arrozaren deribatua, egiten.

Neska batzuk ere ikusi genituen arropa garbitzen erreka- to lasai batean.

Aire zabaleko jatetxe batean amaitu genuen, bi altuerako eraikin baten goiko solairuan zegoen; beheko aldean sukaldeak, komunak eta oroigarri-denda zituen.

Oso gustura jan genuen, eta agapea burutzeko Birmaniako tea hartu ostean, kanoara itzuli ginen; arroz-ardoa ekoizten zuen zentro batera egin behar genuen bisita baztertuta, Pekon-eraino jarraitu genuen, eta hango portu txiki, zikin eta kalamastran lehorreratu ginen. Van furgoneta batera igo eta nahiko egoera txarrean zegoen errepide batetik Loikawra eramane gintuen (45 kilometro inguru).

Aldaketa garrantzitsua izan zen inguru hartan kristau-eragina, katolikoa zein anglikanoa, nahiko ohikoa dela ikustea, ibilbidea zedarritzen duten eliza, eskola eta hilerrietan agerikoa.

Loikawra iritsi ginenean, lehenik eta behin muino baten tontorrean zegoen pagoda deigarri bat bisitatu genuen, edo, hobeto esanda, oso hurbil zeuden bi pagoda: Taung Kwe Zedi edo Muino Zatituko pagoda.

Javi eta biok, San Yurekin batera, eskaileretan gora igo ginen, oinutsik, noski. Isabel eta Bego beste modu batean igo ziren: duela ez asko jarritako igogailuan; eta jaitsi, denok jaitsi ginen igogailu hartan.

Sarreran bizpahiru emakume jirafa zeuden ikusgai. Pena ematen zuten. Gainera, nahiko "hondatuta" zeuden itxura fisikoari zegokionez, zalantza barik, esplotatuta egoteaz gain, turismoa ia ez zelako iristen hara.



Pagoda bi muinoren gainean

Loikaw hiri txikia da, oso txiroa, kaleetan ia argirik gabea, altuera bateko edo biko etxeak oso gutxi zainduak eta zaharrak dituen, bere egoera ekonomiko tamalgarriaren adierazgarri.

Argi dago ez duela gaueko bizitzarik. Eguzkia sartzen denean, ia ez da inolr kalean ibiltzen.

Ostatu hartu genuen hotela, herriko onena, interneten irakurri genuen bezain mugatua zen erosotasunen aldetik. Izan ere, bagenekien ibilbideko kaskarra izango zela. Hiru izarreko kalifikazioa bat dator jende behartsu hark osalaritzaz duen kontzeptuarekin.

36



Buda apostoluz inguratuta



Errekan arropa garbitzen



Nonbait, hainbat resort ari ziren eraikitzen turismo-sustapen handiago baten zain.

Ordezko aukera duinik ez zegoenez, egon ginen bi gaue-tan bertan afaldu behar genuela erabaki zuen San Yuk. Nahiko zikin aurkitu genuen gelako zorua, baina ez ohea, maindireak oso garbi baitzeuden. Goizaldean tren bat

igarotzen entzun genuen. Egunean bat igarotzen da norabide bakoitzean.

Burutazio bat izan nuen orduan: SanYuk ez zuen afaltzen edo lo egiten guk egiten genuen lekuetan. Bere ostatuak oso eskasak izango ziren ziur asko. Ez dugu inoiz jakingo.

NEGOZIATU

sufirimenduarekin amaitzeko

por Juan Carlos Ruiz de Villa | Argitaratuta 27 apirila, 2024

Irakurri nuen Frantzisko aita santuak Vladimir Zelenski Ukrainako presidenteari esan ziola agian ez zela txarra izango Errusiarekin, hau da, Vladimir Putinekin, bakea negoziatzea, eta zerbaitetan amore eman beharko balitz, amore ematea. Haserre txiki bat sortu zitzaidan: Zelenskik negoziatu egin behar du? Bere herrialdea inbaditu dute, bere jendea hil dute, mila aitzakiarekin haurrak ere eraman dituzte Errusiara... Zer negoziatu behar du Zelenskik? Ba, ezer ez. Ukrainarrek beren burua defendatu besterik ez dute egin behar, eraso egin eta kendu dietena berreskuratu behar dute, herri subirano gisa duten askatasunetik hasita.


Egun batzuk geroago, gogora etorri zait Areitiok, Zuzenbide Naturaleko gure irakasle eta katedradunak, klase batean, galdera hau egin zigula: "Heriotza-zigorra berrezarriko balitz eta horrela hilketak amaituko balira, zuek berrezartzearen alde egongo zinatekete?".

Gaztez betetako ikasgela hartan, erantzuna aho batekoa izan zen: "Ez, ez litzateke berrezarri behar!" erantzun zuten ikasleek, ia haserre.

Berririo errepikatu zuen galdera, eta argudiatu egin zuen: "Baina, begira, hilketak amaituko lirateke". Erantzuna berbera izan zen, aho batez, heriotza-zigorraren kontra mundu guztia, ez litzateke berrezarri behar.

Orain, urte asko geroago, eta erretiroaren kontserbadurismoan, zailantzak sortzen zaizkit, eta agian Frantzisko aita santuak iradoki eta Aita Areitiok azaltzen zigun bezala, kasualitatez biak jesuitak, agian negoziatu egin beharko da hainbeste heriotza eta sufirimendurekin amaitzeko. Seguru beraiei ere ez litzaiekeela gustatuko, baina uste dut haien adimenak haratago eramaten dituela, eta ni bezalako batzuek argi ikusten ez duguna haiek argi ikusten dutela.





La Concha

por Fernando Urien | Argitaratuta 4 maiatza, 2024

Zuri, hotz eta gogor, antzigarra belar, espaloi eta hango beribil bakanen gainean zegoen; hormetan gora igo eta etxeko beira haut-sietatik gure pisuko geletaraino sartzen zen. Ohe zurtzen gainean paseatu eta tapaki finen artean sartzen zen, azpian zeuden gorputzak kuzkurraraziz. Airea intzirika zebilen eta iluntasuna oilaruta. Gorputzak hotzaren kontra elkartu eta bat eginda zeuden.

Lurra dardarka zegoen egunsentian, lehen argi-izpiek giroa epel-duko balute bezala. Orduan, artean hotzak ikaraz, jaiki egiten zen ama, eta alabaren gorputza burusiaren azpian uzten zuen uzurtuta, zeina bere gorputzaren gainean tolestuta baitzegoen antzizararen hortzetatik babesteko.

Emakume hura txikia zen, baina ez zen txikiagotzen lanean; argala zen, masailak aurpegian markatuta zituen eta zainen erliebeak eskuetan. Ilea motots eder batean biltzen zuen, ondo jarritako hiru urkilekin eutsita. Tanto zuridun soineko urdin ilun bat eta bitxigileak, bere ama zaintzeagatik, oparitutako belarritakoak izaten zituen soinean; hori besterik ez zuen baliozkorik, eta harro erakustea gus-tatzen zitzaion. Eskailerak eta solairuetako zoruak garbitzen zituen bizibidea ateratzeko; berakatz-zopa gus-tatzen zitzaion. Bere alabekin batekin bizi zen: neskatoak hamabi urte zituen, zaharrena zen. Alaba hura kalera irten ohi zen errazionamendu-ildetan janari pixka bat bilatzera, estraperlistekin tratua egiten ikasia zen, eta lana bilatzen zuen, denek bezala.

Amak, ikusi ninduenean, begiak jaitsi, burua makurtu eta sukalde-ra erretiratu zen, "egun on" ahul eta ia hautemanezin bat esanez; beldur eta mesfidantzen garaia zen. Saguak bezala, ohiz kanpoko zarataren batek bertako monotonia hausten zuenean, hura ere bere gelan ezkututzen zen, beti gau-mahaiko tiraderan gordetzen zuen arrosario bat hartu eta otoitz egiten hasten zen. Han, mahaixko ha-ren gainean, biak, ama-alabak, lotan egoten ziren ohearen ondoan, ostra-maskor leundu eta ondo zaindu bat zegoen. Goizero garbitu eta kontu handiz uzten zuen gau-mahaiaren gainean, portzelana delikatu bat balitz bezala. Beharbada bere senarraren oroigarri bat izango zen, antza denez Otxandioko frontean desagertua zelarik; edo Zaragozako lan-eremu batean preso zegoen semearena; edo segurtasunagatik Ingalaterrara bidali zituen beste hiru alabetako batena; edo, batek daki, kontua da maskor preziatu hura maitasun bereziz tratatzen zuela.

Egun batean bere gelan ikusi nuen, maskorra belarrian zuela ber-betan, itsas maskorra haririk gabeko telefono bat balitz bezala. Kamisoi-a jantzita zuen eta horma aldera begiratzen zuen aurpegia ezkutatu-z. Une hartan burua galduta zegoela pentsatu nuen, haren inguruan bizitza aldatzen ari ziren inguruabar guztiek gainezka egin ziotela haren arrazoimenari. Ez zen harritzekoa, bere familiatik bera bakarrik zegoen, alaba zaharrena, beldurra eta egunen batean iraga-nera itzuli ahal izateko itxaropen txiki hori.

Egia esateko, Zaragozako eremu hartan bakarrik zegoen semearekin berbetan ari zela sinetsita berba egiten zuen maskorarekin. Sufritu egiten zuen zerbait gertatuko ote zitzaion beldurrez. Gero alaba-rekin hitz egiten zuen izandako solasaldiaz. Hamabi urteko neskato hark amaren eskizofrenia eta familiako gainerako kideen absentsia jasan behar zituen. Ze garai latzak! Bakardadea, tristura, isiltasuna eta aldrebeskeria orokortuta zeuden.

Neskatoak sinetsi egiten zion amari, eta erantzun egiten zion: alai, neba ondo zegoela esaten zionean; triste, amak kontrakoa esaten zionean.

Azken aldian, amak eta alabak malenkoniatsu ziruditen, ahapeka hitz egiten zuten, mesfidantzaz mugitzen ziren eta isildu egiten zi-ren norbait hurbiltzen zitzaienean. Dirudienez, uste zuten seme eta neba oso gaixo zegoela, inork ez ziola kasurik egiten, ez zegoela artatuko zuen medikurik, ezta lagunduko zion botikarik ere, tripako min handiak zituela, sukarra, egarria eta bere bakardadean minez bihurrikatzen zela.

Neskatxak kezkatu egiten ninduen, baina ezin nuen amarengandik aldendu. Berarekin bakarrik nengoenean, elkarriketa hutsalak ema-ten nizkion, gerraosteko garai nahasi haiekin zerikusirik bakoak. Hari, ordea, ikusmena eta pentsamenduak, gura gabe, maskorretik zeto-zen albisteetara joaten zitzaizkion. Ezinezkoa zen, ankerra izateaz gain, geratzen zitzaion alaba bakarria amarengandik apartatzea.

Bi egun geroago, postariak atea jo zuen, gutun bat zekarren andrea-rentzat. Dena oso formala izan zen. Hartu-agiria sinatu zuen. Eskua, ikusmena eta gorputz osoa ikaraz dardarka jarri zitzaizkion igorlea Zaragozako Ospitale Militarra zela ikustean. Ez zen semearen gutu-na, agiri ofizial bat baizik. Gutun-azala ireki zuen bere espasmoen haizearen eta barruak urratzen zizkion jakingura indartsuaren artean.

Elefante-emearen ahots zaurituaz, garrasi ikaragarri bat bota zuen, etxeko paretak harramazkatu, eskailera-burua jo eta eraikin osoa zeharkatu zuena, ateak dardarka jarritz azken solairutik lehenengo-raino. Auzokoak irten egin ziren hain alarau zirraragarriaren aurrean zer gertatzen zen ikustera. "Hil egin dute, semea hil dute. Faxista hiltzaile horiek semea lapurtu didate". Eta "hiltzaileak! hiltzaileak!" errepikatzen zuen, eskaileretan gora, eskaileretan behera lasterka heriosuharrean. Zainak hanpatuta zituen saman, begiak irtenda le-gez kontrol barik, aurpegian odola irakiten zuen eta tximetatik tiraka ziharduen eskuekin. Zerua beltzez estali zen eta haizeak teilatuen kontra jo zuen. Bigarren solairuko emakumea tente eta erronkari ate-ra zen. Oihuka, atso kexatiari mehatxu egin zion, salatu egingo zuela gorri eta gezurtia zelako, eta "hiltzaileak!" oihukatzeagatik Espainia salbatzearen bizia ematen zutenen aurka. Isiltasuna mutu geratu zen eta lasaitasunak eskailera-mailak zeharkatu zituen. Etxean alaba bakarrik zegoen, ohean etzanda, ahuspez, negarrez eta dardarka, ura irakiten bezala. Eskaileretan aireak bizilagunen arteko distantziak tenkatzen zituen, eta isiltasunak, hortz zorrotz batek bezala, ama atsekabetua zauritzen zuen. Baretasun mutuaren artean, goiko so-lairutik eskaileretan behera zihoan ahots bat entzun zen: "Baina, an-drea, ez al duzu ikusten semea galdu duela?". Gero isiltasuna itzuli zen eta nor bere etxera sartu zen.

Emakumea bere gelan sartu zen, konkorturik eta balantzaka, ezin izan zuen semea eraman ziotenen aurka bere barrua hustu, ez zio-ten utzi, eta isilik egin zuen negar alabaren eta tapaki finen ondoan, haien kontra estutzen zuelarik aurpegia isilean oihu egin ahal izateko.

Gauetz, antzigarra itzuli zen; eskailerak pausoz pauso igo zituen, hotz zuria maila bakoitzean barrura sartuz, isuritako hezetasunak harri bihurtuz eta, iraganeko diamante gisa, lurrean zegoen **maskor hautsia kristalizatu-z.**

ARGENTINA SENTSAZIOAK

Visitaremos todos los destinos importantes de Argentina en un viaje de 21 días.

Salida 04 de Noviembre

Iguazú

Salta

Bariloche

El Calfate

Buenos Aires

Ushuaia

por asojubi | Argitaratuta 17 maiatza, 2024

Viajes Ikea, S.L., colaborador habitual de esta Asociación en el tema de viajes de diseño adaptados a nuestro colectivo, nos hace llegar un viaje a Argentina con el que está teniendo gran éxito entre sus clientes.

La diferencia para nuestros afiliados/as y acompañantes es que a quienes se apunten les va a hacer un descuento de 300€ (trescientos euros) por persona.

La reserva se condiciona a completar el número de plazas ofrecidas, mínimo 12 y máximo 18, antes del 25 de junio próximo.

Animamos a los compañeros/as residentes fuera de Euskadi a que, si les interesa la oferta, contacten telefónicamente o vía email con la agencia

40

• 4 de noviembre Madrid – Buenos Aires

Salida del aeropuerto de Madrid con destino a Buenos Aires. Noche a bordo

• 5 de noviembre Iguazú

Llegada al aeropuerto de Buenos Aires, Trámites aduaneros. Vuelo a nuestro siguiente destino Llegada al aeropuerto de Iguazú .

Nuestro personal lo estará esperando para asistirlo. Recepción y traslado regular al Hotel

Por la tarde realizaremos la excursión al lado Brasileño . Traslado y alojamiento en el hotel escogido

• 6 de noviembre Iguazú

Desayuno en el Hotel y posterior excursión regular a las Cataratas del lado Argentino. Alojamiento en el hotel escogido.

• 7 de noviembre Iguazú – Salta

Desayuno en el hotel y posterior traslado al aeropuerto de Iguazú para tomar nuestro siguiente avión

Llegada y traslado desde el Aeropuerto de Salta hasta el Hotel escogido en regular.

Por la tarde realizaremos una visita a la ciudad: En esta excursión, que durara alrededor de 3 horas, Alojamiento en el hotel escogido.

• 8 de noviembre Salta – Purmamarca

Desayuno en el hotel y saldremos para nuestro circuito “Vuelta a las Alturas” en nuestro circuito en semiprivado. Alojamiento en Purmamarca

• 9 de noviembre Purmamarca – Salta

Desayunamos en el hotel y visitamos Humahuaca, corazón mismo de la Quebrada que aguarda al visitante plena de atractivos naturales,

• 10 de noviembre Salta

Desayunaremos en el hotel y realizaremos una excursión hacia el pueblo de Cafayate, famoso por sus viñedos y allí podremos visitar una bodega, después de la cual,



nos darán tiempo libre para almorzar y por ultimo regresaremos a Salta y nos alojaremos en el hotel escogido.

• **11 de noviembre Salta – Bariloche**

Desayuno en el hotel y traslado desde el Hotel hasta el Aeropuerto de Salta en traslado regular. Traslado desde el Aeropuerto de Bariloche hasta el Hotel escogido en traslado regular. Alojamiento.

• **12 de noviembre Bariloche**

Desayuno en el Hotel y posteriormente realizaremos la excursión de Cerro Chico.

• **13 de noviembre Bariloche**

Desayuno en el Hotel, y día libre. Alojamiento en el Hotel escogido.

• **14 de noviembre Bariloche – Calafate**

Desayuno en el Hotel y traslado desde el Hotel escogido hasta el Aeropuerto en regular.

Traslado desde el Aeropuerto de Calafate al Hotel escogido. Alojamiento en el hotel escogido.

• **15 de noviembre Calafate**

Desayunamos en el hotel recogida en nuestro hotel donde el corresponsal nos vendrá a buscar para realizar la excursión al Parque y Reserva Natural

Los Glaciares, declarado por la UNESCO Patrimonio Mundial (natural), donde visitaremos el Perito Moreno.

Posteriormente probaremos con nuestro safari náutico donde navegaremos por el Lago Rico que permite apreciar los témpanos provenientes de las

paredes de hielo del Glaciar Perito Moreno. Después de un día maravilloso regresaremos a nuestro hote

I 16 de noviembre Calafate

Desayuno en el Hotel. Día libre.

Recomendaciones:

Ríos de Hielo Exprés.

Estancia Cristina Discovery

Excursión Full day a Torres del Paine

Excursión Full day a el Chalten,

• **17 de noviembre Calafate – Ushuaia**

Desayuno en el hotel y traslado desde el hotel escogido hasta el Aeropuerto de Calafate.

Llegada y traslado desde el Aeropuerto hasta el hotel escogido en regular. Alojamiento.

• **18 de noviembre Ushuaia**

Desayuno en el Hotel.

Excursion 4 x 4 Lago Fagano .El 4 x 4 nos permite llegar a lugares donde el acceso sería imposible de otra manera, bosques, barro, piedras, el lago

Fagnano nos sorprende con sus dimensiones y su increíble paisaje. Después de almorzar regresaremos a Ushuaia. Alojamiento en el hotel escogido

• **19 de noviembre Ushuaia**

Desayuno en el Hotel y posterior excursión al Parque de Fin del Mundo

Nos detendremos para montar en el “trecito de los presos” hasta el Cañadón del Toro, dentro del Parque Nacional, y continuaremos hasta la bahía Ensenada ,

Vista de la Isla Redonda y los montes nevados de la Cadena Sampaio.

Por la tarde realizaremos el embarque en el puerto de Ushuaia, Canal Beagle, hacia el sudoeste, llegando hasta el Faro Les Eclaireurs. Regreso a Ushuaia.



• **20 de noviembre Ushuaia – Buenos Aires**

Desayuno en el Hotel y posterior traslado desde el Hotel escogido hasta el Aeropuerto en regular. Llegada y traslado desde el Aeropuerto hasta el hotel escogido en regular Alojamiento.

• **21 de noviembre Buenos Aires**

Desayuno en el Hotel.

La visita de medio día a la ciudad incluye la Plaza de Mayo con su Casa Rosada (de Gobierno), la Catedral, y el Cabildo; el barrio de la Boca, con su “Caminito”, bien conocido por el tango; la Plaza San Martín, la Avenida Santa Fé, el Cementerio de la Recoleta (donde yacen los restos, entre otros, de Evita), Palermo Chico, las canchas de Polo y el Hipódromo, los Bosques de Palermo, el Rosedal, la Avenida del Libertador, el Congreso, la Avenida 9 de Julio con su Obelisco -símbolo inequívoco de Buenos Aires- y el Teatro Colón.

Alojamiento en el hotel escogido

• **22 de noviembre Buenos Aires**

Desayuno en el hotel. Día Libre.

Recomendaciones: Excursión de medio día al delta del Tigre Cena Tango Show .

Por la noche, como broche de oro del viaje, revivirá la historia del Buenos Aires de ayer. La Cena Tango Show es la mejor manera de vivir la experiencia del TANGO en todo su esplendor. Alojamiento en el Hotel escogido.

• **23 de noviembre Buenos Aires- Madrid**

Desayuno en el Hotel y último día para disfrutar de Buenos Aires, aprovecharemos el día para compras de última hora o para acabar esas visitas pendientes

Por la noche nos realizaran el traslado a el Aeropuerto de Ezeiza para realizar los trámites aduaneros y tomar el vuelo con destino a Madrid Noche a bordo.

• **24 de noviembre Madrid**

Llegada a Madrid y fin de nuestros servicios.





ZETAREN IBILBIDEA – UZBEKISTAN

(2024-09-02tik 2024-09-11ra)

Os presentamos la oferta de viajes elaborada por B Travel para nuestro colectivo: un viaje a Uzbekistán.

10 abril 2024 | por asojubi

Nos ofrecen una presentación (con un vinito incluido) de la mano de Mikel Lemos, Delegado de Catai.

Esta presentación tendrá lugar en su Oficina de C/Gran Vía 56 -48011 Bilbao, el día 24 de Abril a las 18:30 de la tarde.

Para inscribirse a esta presentación o para cualquier duda, por favor, ponerse en contacto con su directora María Rodrigo en el teléfono 946835293 .



RESUMEN DE ITINERARIO:

- 02 SEPTIEMBRE: **Bilbao – Estambul – Samarcanda**
- 03 SEPTIEMBRE: **Samarcanda**
- 04 SEPTIEMBRE: **Samarcanda**
- 05 SEPTIEMBRE: **Samarcanda a Bukhara en tren**
- 06 SEPTIEMBRE: **Bukara**

- 07 SEPTIEMBRE: **Bukhara a Khiva en bus**
- 08 SEPTIEMBRE: **Khiva**
- 09 SEPTIEMBRE: **Khiva Urgent Tashkent en avion**
- 10 SEPTIEMBRE: **Taskent**
- 11 SEPTIEMBRE **Tashkent – Estambul – Bilbao**

3 Noches en Samarcanda
2 Noches en Bukhara
2 Noches en Khiva
2 noches en Tashkent

HOTELES INCLUIDOS:

- Samarcanda: HOTEL KOHINUR (NUEVO)
- Bukhara: ORIENT STAR VARAXSHA
- Khiva: ERKIN PALACE
- Tashkent : HAMPTON BY HILYTON

INFORMACIÓN DE VUELOS: COMPAÑÍA AÉREA: TURKISH AIRLINES

SALIDA:02 SEPTIEMBRE

BILBAO- ESTAMBUL : 12.10 – 17.15

ESTAMBUL-SAMARCANDA: 21.50-04.10 3 SEP-
TIEMBRE

REGRESO: 11 SEPTIEMBRE

TASHKENT-ESTAMBUL 09.20-12.35

ESTAMBUL-BILBAO 14.00-17.25

SERVICIOS INCLUIDOS:

- Vuelos línea regular con la compañía Turkish con maleta facturada
- Alojamiento en hoteles indicados 9 noches

- Pensión completa. 9 desayunos, 8 almuerzos, 8 cenas (algunos locales y alimentos típicos). Te y agua en las comidas
- Espectáculo Luz y Sonido y cena con Folklore y bailes en Samarcanda
- Show folklórico acompañado de vino y queso en Khiva
- Transporte en bus con aire acondicionado, tren y avión
- Entradas a museos y sitios históricos
- Guía de habla hispana con todas las excursiones
- Acompañante de B Travel & Catai desde Bilbao
- Seguro de asistencia y cancelación
- Tasas de aeropuerto

• INSCRIPCIONES: FECHA TOPE INSCRIPCION 01 JULIO 2024

PRECIO POR PERSONA EN HABITACION: 2.660 € POR PERSONA

SUPLEMENTO DE INDIVIDUAL: 280 € POR PERSONA

- Para formalizar la inscripción, se abonarán 800€ en el momento de la inscripción. Resto de pago antes 30 julio. La información detallada del viaje se dará en la agencia de viajes

- Precios basados en un grupo de 20 personas.

- Posibilidad de salir desde otro punto de España (Consultar)

B TRAVEL & CATAI: Gran Vía 56 Tfno 946835293 - Preguntar por Maria Rodrigo: Mail : mj.rodrigo@btravel.com.





BBK_ ko Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea

Principe kalea, 5. 505 saila
48001 BILBAO
Tel. 94 425 57 96
asojubibbk@gmail.com
www.asojubibbk.es

